

Goienkaria

2010eko ekainaren 4a > Egubakoitza > X. urtea > 424. zenbakia > Doan banatzekoa

Goiena 10 URTE
www.goiena.net TOKIKOM

"ETak erantzuten ez badu, usteldu egingo da Bruselako adierazpena"

Paul Rios
Lokarriko koordinatzailea > 09



BERGARA
Seminarioko elizan bi bisita gidatu egingo dituzte ekainean > 16

ARETXABAETA
AP-1ek egindako kalteak Udalak konpon ditzan nahi dute > 24

ANTZUOLA
Eskriturak sinatzea baino ez da falta osasun etxea atontzeko > 27

KIROLA
Ruiz de Azua pertika jauzilariak marka ezarri du: 3,50 metro > 14

EUSKARA > JAIA

Mintza Eguna ospatuko dute domekan Arrasaten

BAZKARIA Ekitaldi nagusia herri bazkaria izango da, eta horretarako 500 txartel atera dituzte antolatzaileek

GONBIDAPENA Euskal Herriko mintzalagunez gain, debagoiendarrei ere dei egin diete parte har dezaten > 05

KIROLA > JAIA

Euskal Herriko atleta onenak bihar Oñatin

Euskal Selektzioaren aldeko jaiaren barruan, punta-puntako 10.000 metroko lasterketa egingo dute Oñatin bihar (17:45). Corpus bezperako lasterketa beste formatu batekin dator, eta Euskal Herriko atleta onenekin batera herri mailako atletek ere esku hartu ahal izango dute. Jaiaren barruan Debarro pilota txapelketako finalak ere jokatu dira, 16:30ean, Zubikoan. > 30

JENDARTEA > ELKARTASUNA

Hiru autobus Palentziara, Elkororen alde

Hiru autobus abiatuko dira domekan Dueñasko (Palentzia) kartzelara Jose Luis Elkorro libre plataformako kideek antolatutako martxaren barruan. *Autobus martxan goaz ikurrina ekarri zigunari elkartasuna eramatera* lelopean abiatuko dira. Besteak beste, herria oinez zeharkatuko dute espetxeraino, eta hara heltzean ekitaldia egingo dute. > 05

JENDARTEA > ELKARTASUNA

Herri txiroak ardatz Elkartasun Egunean

Arrasaten egingo dute bihar, GKEek antolatuta; egun osoko egitaraua prestatu dute > 13

AURKIBIDEA

Debagoiena > 02-03
Gutunak > 06-07
Iritzia > 08
Elkarrizketa > 09
Herriak > 11-27
Kirola > 28-29
Kultura > 33
Gazteak > 34
Sailktuak > 35
Telebista-Irratia > 36
Berri-zakua > 37
Eskelak > 37
Non-zer > 38-39



SANTA ANAN Kepa Aranburu eta Aitor Perosterena, atzo, patroiaren kasko eta DVDarekin.

XABIER URTZELAI

'Patroiarekin dantzan' DVDa kalean da G2a

Labetik irten berria da *Patroiarekin dantzan*, Kepa Aranburu eta Aitor Perosterena oñatiarrek beste herrikide askoren partehartzearekin batera egin duten dokumentala. 2008ko Corpus jaietan hartutako irudiekin eta elkarrizketekin osatu dute salgai dagoen DVDa. > 31

EUSKALGINTZA > KRISI EKONOMIKOAREN ERAGINA

Diru gutxiago, baina animo berberarekin

EGOKITU Euskara elkarteak, komunikabideak, udaletako euskara zerbitzuak... aurrekontu nabarmen txikiagoekin dabilta lanean

AURRERA Irudimena erabiltzen, ordeko diru-iturriak bilatzen eta bide berriak jorratzen dihardute euskalgintzako arduradunek

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Euskalgintzari ere gerrikoa estuzea tokatzen zaio, eta egoera horretara egokitzen dihardute Debagoieneko eragileek.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzak iazkoak baino %18-20 txikiagoak dira aurten: hiru milioitik bira pasa da kopurua. Hala, Topaguneko zuzendari Jasone Mendizabalen esanetan, "iaz Foru Aldunditik Debagoieneko euskara elkarten artean 50.000 euroren bueltan jaso ziren euren urteko jardura aurrera eramateko. Laguntza hori orain kolokan dago. Murrizketa esanguratsuen da: Debagoieneko euskara elkarteek iaz %10eko jaitsiera jasan zuten, eta horri aurten %20 eta %30 bitarteko jaitsiera gehituko zaio". Eusko Jaurlaritzak oraindik ez du bere deial-

Erakundeek iaz baino %20 diru gutxiago dute, eta hori islatu da euskararen dirulaguntzetan

Jaurlaritzak laster egingo du bere deialdia; Iparraldeko euskarari 1,6 milioi emango dizkio

dia egin. Hala ere, Lourdes Auzmendi Hizkuntza Politikarako sailburuordeak esan du euskarazko hedabideen dirulaguntzak ez dituela txikituko.

Jasone Mendizabalek honako irakurketa egiten du: "Orain artean euskara elkarten urteko jardun osoa baloratzen eta laguntzen zuen Foru Aldundiak, baina 2010etik aurrera oso proiektu zehatzak bakarrik lagunduko dira. Deialdiaren izaera murriztaileak kezkatzen gaitu, euskara elkarten kultura jardura gehiena kanpo gelditzen baita, sentsibilizazio lana, bazkideen eta herritarren dinamizazioa, entitateak euskalduntzeko programak, auzoetako proiektuak...". Horrek guztiak, haren esanetan, "elkarten egonkortasuna ere arriskuan jartzen du". Horri aurre egiteko, elkarte bakoitzak bere estrategia dauka: "Elkarre batzuetan pertsonalean izaten ari da eragin zuzena, eta beste batzuetan, proiektu zehatzak erortzen ari dira. Autofinantzaketarako bide berriak jorratzen daukagu erronka, baina irtenbide argi eta orokorrik ez daukagu. Irudimenari eragin beharko diogu eta bide berriak topatu".

"AUKERAK SORTUKO ZAIZKIGU"

AEDK, Ekinek eta Txatxilipurdik honako hausnarketa egiten dute: "Aurrekontu genuen egoera bat da eta jardura batzuen aurrekontuak egokitu ditugu aurtengo. Hala eta guztiz ere, betiko dina-



Txatxilipurdik antolatutako jolasak.

mikari eutsi diogu, oro har. Erabaki batzuk hartu behar izan ditugu administrazioaren erantzuna jakin gabe, ez baitakigu euskara sustatzeko dirulaguntzekin zer gertatuko den. Izan ere, dirua egon badago, baina badirudi beste gai batzuei ematen zaiela lehenetasuna, euskararen sustapenari ez, behintzat. Nolanahi ere gure lana ezinbestekoa da euskararen normalizaziorako eta ohiko eskaintzari eusten ahalegintzen ari gara, eta aldi berean jardura eta bide berriak bilatzen. Jendeak euskaraz bizitzeko nahia erakusten duen bitartean eta horren alde egiteko prest dagoen bitartean aurrerapausoak ematen segitzeko aukerak sortuko zaizkigu".

Jardun elkarteko Nerea Mendizabalek antzeko iritzia agertzen du: "Egoera hau aurreikusita, gastuak ahalik eta gehien zaintzen gabilta. Langile bat

gutxiagorekin gabilta. Baina jendeak ondo erantzuten du, eta uste dugu gure eskaintzan ere ez dutela aldaketarik igarri".

Loramendi elkarteak aurten aurkeztu ditu bere irudi eta estrategia berriak. Gakoa, sustraietara bueltatzea, Beñat Zamalloa arduradunak dioskun moduan: "Momentu hauetan, inoiz baino gehiago, bazkideen elkarte gara; gure helburua da herrian eraginkortasuna lortzea, elkarte indartzeko". Krisi ekonomikoak "aro berri baten harrapatu" arren elkarteak, "moldatu beharra lehenetik zetorren" euren doko.

JARRERA "ERALDATZAILEA"

Euskal komunikabideak dira krisiak bereziki kaltetutako beste batzuk. Goienako zuzendari nagusi Inazio Arregik dioenez, "halakoetan etxeko lanak ondo egitea, sakon egitea da garrantzi-

TXANTXIKU
IKASTOLA

**TXANTXIKU IKASTOLA Kooperatiba Elkartearen
OHIKO BATZAR NAGUSIA**

EGUNA: Ekainaren 22a, martitzena**ORDUA:** 18:00etan lehen deialdian eta 18:30ean bigarrenan.**LEKUA:** Ikastolako Aretoa (San Juan kalea, 1)**EGITARAUUA**

1. Akta onartzeko bi kide izendatzea.
2. Aurreko aktaren txostena irakurri eta, hala badagokio, onestea.
3. Kudeaketa txostena.
4. 2009 urteko kontuak eta 2010 urteko aurrekontua aztertzea eta onartzea.
5. 2009 urteko gaindikinen banaketa onartzea.
6. Gurasoen Kontseiluaren txostena.
7. Zaintza Batzordeko kide berria aukeratzea.
8. Eskariak eta galderak.

Oñatin, 2010eko ekainaren 4an



IBERDROLA
IBERDROLA

IBERDROLA-ren gas eta elektrizitatearen alta berriendako, arreta-gunea honako helbidean izango da:

MILAR-ELKORO :
Olarte kalea 1.

Tel.: 943 79 18 86

ASTELEHENETIK OSTIRALERA
09:30 - 12:30 eta 16:30 - 19:30





GOIENKARIA



GOIENKARIAK.



Arritxu Barruso GOITBko aurkezlea.



Nerea Mendizabal, Jardunen egoitzan.

LEIRE KORTABARRIA

tsuena. Egoera berriak ezartzen dituen baldintzetara jarrera eraldatzailearekin hurbilduaz; aldatuaz: egoera ekonomiko berrira egokituz, baina baita ere gure bezero-irakurle-ikusleen beharretara egokituz".

Are okerrago daude Nafarroan. Ttipi-Ttapa Fundazioko Joxe Manuel Irigoienek euren egoera azaldu digu: "Nafarroako Gobernuak iaz ez zuen dirulaguntzarik eman. Aurtengo deialdia egin du: 220.000 euro banatuko dira euskarazko komunikabideendako; oso kopuru sinbolikoa". Egoerak behartuta, "ordezko diru-iturriak" bilatu behar izan ditu Ttipi-Tta-

pak, eta jendearen laguntza ezinbestekoa izan du horretan: "Nafarroako Kutxak badu fondo sozial bat, eta horren bidez, irabazi-asmorik gabeko erakundeei dirua bideratzeko aukera ematen du. Aukera hori egin duten bezeroei esker, 45.000 euro lortu ditugu".

EZ DA EZER KENDU

Aurrekontuak %15-20 txikitu dira udaletan, eta Foru Aldundiak eskatu die beste %5 murrizteko. Oñatiko Udaleko Euskara arduradun Marian Lizarralde honela azaltzen du egoera: "Hizkuntza normalizazioa helburu duten diru-atalak kontuan hartuta,

%16,35 euroko murrizketa izan dute, baina txikiagoa iazko likidazioa kontuan hartuta. Udal aurrekontuetan gertatu dena azaltzeko termino egokiena murrizketa da, euskararen normalizaziorari dagokionez ez baita ezer kendu aurtengo egitasmoetatik".

Lizarralderen hitzek laburtzen dute Debagoieneko udale-tako euskara zerbitzuek bizi duten egoera. Bergaran, Estepan Plazaola arduradunak hau diosku: "Gure aurrekontua ere %20 txikitu da. Dirulaguntzak ez dira denetara berdina ailegatu, baina iazko kopuruari eustea izan zen gure hasierako planteamendua".

ESANAK

"Jendeak euskaraz bizi izateko nahia erakusten duen bitartean, aukerak sortuko zaizkigu"

Itxaro Artola >
AEDko kidea

"Aurten %20 txikitu zaizkigu laguntzak, iaz %10, baina betiko eskaintzari eusteko apustua egin dugu"

Nerea Mendizabal >
Jarduneko kidea

"Bazkideen elkarteak gara; herrian eraginkortasuna lortu nahi dugu, elkarteak indartzeko"

Beñat Zamalloa >
Loramendiko kidea

"Egoera berriak ezartzen dituen baldintzetara jarrera eraldatzailearekin hurbildu behar gara"

Inazio Arregi >
Goienako zuzendaria

"Gobernuak ez zuen dirulaguntzarik eman iaz, eta aurten, 220.000 euro ditu; kopuru sinbolikoa da"

Joxe Manuel Irigoien >
Ttipi-Ttapako zuzendaria

"Udal aurrekontuetan murrizketa gertatu da, baina euskararen normalizaziotik ez da ezer kendu"

Marian Lizarralde >
Udal Euskara teknikaria

#Gipuzkoa

**Krisiaren aurkako
2010 Plana**
100 milioi euro

Enplegua sortzea

Gipuzkoan badugu Plana:
Lan-munduan sartzen laguntzea zailtasun bereziak dituzten taldeei eta enpresetako gizarte-balioak sustatzea.

GIPUZKOA
zurekin, aurrera >

MUGIKORTASUNA > ARANTZA TAPIAREN HITZALDIA

"Ez dauka zentzurik Debagoiengan bus azkarra eta tranbia, biak jartzea"

Arantza Tapiak esan du Debagoieneko Bus azkarraren proiektua bukatzeaz dagoela

Eskualdeko garraioaz eta mugikortasunaz berbaldua egin du Bergaran, EAJk gonbidatuta

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Lurralde Antolakuntza diputatu Arantza Tapiak hitzaldia egin zuen martitzenean, Bergarako EAJk gonbidatuta. Miguel Altuna institutuan, Debagoieneko garraio publikoaz, ibarreen Lurraldebus txartelak izan duen harreraz, eta bus azkarrak egin zuen berba, besteak beste.

BUS AZKARRA ETA TRANBIA

Autobus azkarra Debagoiengan jartzeko proiektuaren gainean berba eginez hasi zuen hitzaldia. Proiektua bukatzeaz dagoela esan zuen, eta hurrengo pausoa papelean jasotakoa nola gauzatu erabakitzea izango dela. "Eredu one-na zein den badakigu. Orain, ikusi egin beharko dugu fisikoki nola egokitzen dugun. Leku

batzuetan errepidea bikoiztu egin beharko dugu", esan zuen Tapiak. Era berean, argitu zuen Aldundiak esku artean duen proiektua herri arteko errepideendako izango dela. "Herri barruko errepideetan bus azkarra nola egokitu udalek erabaki beharko dute", gaineratu zuen.

Aldundiak bus azkarraren proiektuarekin dihardu, eta Eusko Jaurlaritzak tranbiarekin. Tapiaren ustez, biak bateragarriak dira, baina ez batera: "Bus azkarraren plataforma tranbiak erabil dezake, eta alderantziz. Baina Debagoienerako nahikoa da batekin, biak jartzeak ez luke zentzurik izango".

LURRALDEBUS

Bestalde, txartel bakarrak ibarreen izan duen bilakaeraz egin



Arantza Tapiak eta Inazio Arriola, hitzaldian.

MIREIA BIKUÑA

zuen berba. Hasieran izan zuen %10eko igoera mantendu egin dela esan zuen: "Erabiltzaile fideltateak ditugu, baina hasierako hila-beteak gogorrak izan ziren".

Bestalde, laster Arrasateko urbanoa Lurraldebus txartelaren barruan sartuko dela esan zuen. "Udalak urbanoaren zerbitzua lehiaketara aterako du, eta

ondoren jarriko dugu sistema guztia martxan, urbanoaren erabiltzaileek txartel bakarra erabil dezaten". Oraingoz, Bergarako urbanoaren gaineko berririk ez duela esan zigun Tapiak. Urbanoa Lurraldebusen sartzeko eskaera udalek egiten dutela esan zuen.

EDUEGI BASERRIA

Bestalde, AHTren lanak egin ahal izateko Bergarako Eduegi base-riari babes maila jaitsi egingo dio Eusko Jaurlaritzak. Horren gainean galdetu genion Arantza Tapiari. "Orain arte ez diote ezerri babes mailarik jaitsi. Jeneralean, igo egiten dute. Eduegi base-riaren gaia Legebiltzarrean eta Batzar Nagusietan aztertu zen, baina Jaurlaritzak ez dago AHTren ibilbidean aldaketak egiteko gertu", esan zigun.

BIDEGORRIAK

Bidegorrien gainean esan zuen Gipuzkoako sarea aurrera doala, "poliki" bada ere. Era berean, azaldu zuen bidegorriek garraio-arendako "alternatiba" izan behar dutela, ez bakarrik paseatzeko guneak.

Zure kontzientzia ekologikoa primeran doakizu.

INGURUMEN JARDUERETAKO AGENDA

Ospatu gurekin Ingurumeneko Munduko Eguna. Parte hartu Alala plazako gure jardueretan eta tailerretan.

Ekainaren 3tik 19ra

Erakusketa:

Uretatik zehar mugituz: tanta guztiak garrantzitsuak dira Arabako Gurutze Gorriaren bitartez ezagutu ur eskasiarekin eta lehorteraino lotutako arazoak eta ura modu arrazionalerik erabiltzearen garrantzia.

Ekainak 3, 4 eta 5

Visual Step

Ingurumenarekin elkarrekin aritu sistema interaktibo berri honen bidez.

Ekainak 4 eta 5

Berriz erabiltzeko poltsa ekologikoak opari

Ordutegiak: 11:00etatik 15:00etara
eta 17:00etatik 21:00etara

Eraman zure poltsa El Boulevard merkataritzaguneko 20 eurotik gorako erosketa-txartela erakutsiz eta planeta kontserbatzearen alde egiten duzunari buruzko mezua utziz.

Ekainak 4, 5, 11, 18 eta 19

"Ingurumena zaindu dezagun" tailerrak eta Jokoen Zona Birtuala

Ordutegiak: Ostirala: 18:30etik 21:30era
Larunbata: 12:00etatik 14:00etara
eta 18:30etik 21:30era



Konpromisoz beteta, ZUTAZ beteta.

 Cruz Roja
Gurutze Gorria


el Boulevard
de Vitoria-Gasteiz

www.el-boulevard.com
Bezeroarenganako Arreta: 945 155 440



Soralucek Bilbon jarri duen erakusmahaia.

GOIENKARIA

DATUA

150

MILA METRO KOADRO

Bilboko makina-erreminta azoka Barakaldoko BECen egiten da eta 150.000 metro koadro hartzen ditu sei pabiloitan. Aurtengoa 26. edizioa izan da; maiatzaren 31n hasi eta bihar amaituko da.

ketin arduradunak. Oscar Urdangarin Danobat taldeko zuzendari komertzialaren ustez ere, azoka gizarteak bizi duen egoera ekonomikoaren isla da.

ZER ERAMAN DUTE?

Batez ere, makina handiak dira ibarreko enpresek Bilbora eraman dituztenak.

"Danobatek esfortzu handia egin du: 1.400 metro koadroko erakusleioa jarri dugu. Ekarri dugu, alde batetik, Danobat Group taldearen irudi berria; eta, bestetik, 14 makina", dio Urdangarinek. Soralucek bi makina eroan ditu Bilbora.

Makina handiak eraman dituzte ibarreko enpresek: "Makina handiak eta kalitatezkoak egitea da garrantzitsua beste herrialde batzuen aurrean lehiakorrek izateko", azaldu du Imanol Barrenetxea Fagor Arrasateko marketin arduradunak.

IRUDIA EMATEA

Horrelako feriek zertarako balio duten galdetuta, Urdangarinek haxe dio: "Irudia emateko balio du. Hemen ez dira negoziok lotzen, baina bai hasi". Roman ere iritzi berekoa da: "Harremanak egiteko balio du; salmentak ez dira ixten, baina bai lehenengo harremanak egin".

Azoka bisitatu gura duenak gaur eta bihar izango du azken aukera, 10:00etatik 18:30era.

MAKINA-ERREMINTA > AZOKA

Egoera ekonomikoaren adierazle izan da Bilbon egindako bienala

Debagoieneko lau enpresak eroan dituzte euren produktuak Bilboko azokara

Makina-erremintako produktu eta zerbitzuen erakusleio bihurtu da Bilbo egun hauetan

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA
Beste urte batzuetan baino lagun gutxiago dabil aurtengo Bilboko makina-erreminta azokan. Hori da hara joan diren Debagoieneko enpresetako arduradunek azaldu digutena.

Maiatzaren 31n inauguratu zuten azoka, eta bihar arte, zapatua, egongo da zabalik. Aurten goa 26. edizioa da.

DEBAGOIENEN KOKO LAU ENPRESA
Debagoieneko enpresei dagokionez, lau izan dira Bilboko azokara euren makinak eraman dituztenak: Arrasateko Fagor Arrasate eta Fagor Automation eta

Bergarako Soraluce eta Danobat Railway Systems.

Makina-erremintako produktu eta zerbitzuen erakusleioa da Bilbo egun hauetan; 24 herrialde

detako 1.000 enpresatik gora batu dira. "Astelehenean oso jende gutxi ibili zen, eta egunak pasa ahala jende gehiago etorri da", dio Ibon Romanek, Soraluceko mar-

ESALDIA

"Makina handiak eta kalitatezkoak egitea da garrantzitsua beste herrien aurrean lehiakorrek izateko"

Imanol Barrenetxea > Fagor Arrasate

ESALDIA

"Irudia emateko balio dute horrelako azokek; ez dira negoziok lotzen, baina bai hasi"

Oscar Urdangarin > Danobat

EUSKARA > JAIA

Ekitaldi ugari Arrasaten etzi, Mintza Eguna ospatzeko

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE
Mingainak euskaraz dantzan jarriko dituzte domekan Arrasaten. Mintzapraktika egitasmoaren ikasturteari amaiera jai giroan emango diote. Horretarako, egitarau zabala prestatu dute (ikus ondoko taula).

Herri bazkaria izango da etziko ekitaldi potoloena; izan ere, mintzalagunez gain, antolatzaileek arrasatearren eta debagoienarren parte-hartzea bultzatu gura dute. 500 txartel atera dituzte eta AED, Jardun eta Loramen-di euskara elkarteetan jarri dituzte salgai 20 eurotan.

BOSGARREN EDIZIOA

Domekakoa Mintza Egunaren bosgarren edizioa izango da -aurretik, Iruñean, Donostian, Getxon eta Gasteizen egin dute-.

Topaguneak antolatzen du eta helburu nagusia da Mintzapraktika egitasmo ezberdinetan parte hartzen duten kideek elkar ezagutzeko.

Egitaraua

11:00 Ongietorria eta hamaiketako Biteri plazan.
12:00 Ibilaldi gidatua herriko berezitasunak ezagutzeko.
13:30 Kalejira herriko kaleetan.
14:30 Herri bazkaria Herriko Plazan.
15:30 Sari eta opari banaketa.
16:00 Erromeria Kataia taldearen eskutik

OHARRA: bazkarirako sarrerak AEDn, Jardunen eta Loramen-di daude salgai, 20 eurotan.

JENDARTEA > ELKARTASUNA

Hiru autobus Palentziara, Elkoro askatzea eskatzeko

09:00etan irtengo dira Bergarako plazatik eta 12:00etan helduko dira Dueñasera (Palentzia)

M.B. > BERGARA
Jose Luis Elkoro libre plataforma kideek Dueñaseko (Palentzia) kartzelara martxa egingo dute etzi, *Autobus martxa goaz ikurrina ekarri zigunari elkartasuna eramatera* lelopean. Lau autobus irtengo dira 09:00etan Herriko Plazatik eta 12:00etan helduko dira Dueñasera. Martxa parte hartu gura dutenek gaur, egubakoitza, izena eman dezakete oraindik, Bergarako tabernetan.

EKITALDIA KARTZELA KANPOAN
Dueñasera heltzen direnean memoria historikoaren gaineko ekitaldia egingo dute. Ondo-

ren, herria zeharkatuko dute oinez, eta kartzelarako bidea hartuko dute. Lau kilometro egingo dituzte oinez. Dena den, pertsona nagusiendako autobusa jarriko dute. Kartzelara heltzen direnean, ekitaldia egingo dute. Bazkaldun ondoren, etxerako bidea hartuko dute. Antolatzailen asmoa da 20:00etarako Bergaran egotea.

PLATAFORMAREN HELBURUAK

Jose Luis Elkoro libre plataforma 60 bat herritarrek sortu dute. Helburua da Bergarako alkate izandakoari elkartasuna adieraztea eta kartzelatik ateratzeko biderik motzema topatzea.

> INDARKERIA

Ustez bikotekidea erasotzeagatik gizon bat atxilotu dute

Ertzainak 22 urteko gizon bati atxilotu zuen astelehen gauerdian Arrasaten, emakumeen kontrako indarkeria delitua egitea akusatuta. Ustez bikotekideari eraso egin zion: burukada batekin sudurra apurtu zion. Emakumea Debagoieneko Ospitalera eroan zuten azterketa egiteko.

BORROKA, ETXEAN

Gauerdia baino minutu batzuk lehenago jaso zuen Ertzaintzak deia. Herriko Plazan emakume bat zegoen zaurituta: aurpegia eta arropak odoloduta zituen. Gizonezkoak, aldiz, odol orbanak eta urratuak zituen. Ertzaintzaren arabera, bikotea bizi den etxean hasi zuten eztabaida. Lehenengo ikerketak egin ondoren epailearen esku utzi zuten gizon bati.

Joxepari

Juan Ramon Garai

(Debagoieneko Fusilatuen Batzordea)
Arrasate

Atzo [maiatzak 26], zure agurrean, *Amets gorria* abestia Gose taldearen Ines Osinagak abesten zuen bitartean konturatu nintzen oso kantu aproposoa zela zuretzat:

Zure senarra, Tomas, hainbeste aldiz esan eustezuna, Dragones miliziano batailoia-
ren teniente izan zena Gazte Sozialista Bateratueta –JSU– eta berarekin borrokatu ziren beste gudari asko ere erabat ados egongo ziren abesti honetan salatzen denarekin:

Oroimenari hesiak jarritz, kapitalismoa besarkatuz... Dena, demokrazia baten alde, arraza bereko erregearen alde... Zuen borroka guztia, hildako guztiak, azkenik etsaien eskutik jateko... Ahazteko eskatu ziguten, eta ahaztu genuen. Iruzur egin ziguten, Frankista guztiak bada demokrata zirela uste arazi ziguten...

Zuk ere erabat ados zeuden, eta Debagoieneko Fusilatuen Batzordeko ekitaldi guztietara agertzen zinen: noiz arte justiziarik gabe erreklamatzera eta gudari haiek maite zituzten bandera guztiak, ikurrina, gorria, gorri-beltza, errepublikanoa, EAE-ANVkoa, orain urtebete elkarrekin lore sorta bat jarri genien Debagoieneko Monolitoan *Gure gogoan* zaudete lelopean.

Intxortako magalean, zure senar Tomasek beste miliziano eta gudari askok bezala, faxisten genozidioari erresistentzia irmoa egin zieten leku bereberan. Euren memoria historikoa bizi, gogoratu eta gordetzeko gunea inauguratzen zen egunean joan zara. Zurekin ikasitako guztia gurekin gelditzen da eta lekuko izan den ia mende batek toki aipagarri baten ipiniko du zure izena, Joxepa.

Eskerrak zu ezagutu arren. Sekula ez zaitugu ahaztuko.

Joxepa Arregiren familiaren partetik, eskerrik asko

Jose Alberto, 'Garratz' eta Isabel Zabarte

(Joxepa Arregiren familiaren izenean)
Arrasate

Eskerrik asko, Joxepari azken agurra eman diozuen guztioi; momentu zail honetan gure ondoan izan zareten guztioi; elizari izan zireten guztioi; omenaldian parte hartu zenuten guztioi; hitz goxoak eta atseginak esan diguzuen guztioi; berotasuna eta lasaitasuna eman diguzuen guztioi; eta, noski, Joxepa oroimenean eta bihotzean izan duzuen guztioi. Eskerrik asko, bene-

benetan.

Udal Gobernuak Bergarako PNVri

Agurte BARRUSO

Bergarako alkatea
(Udal Gobernuaren izenean)
Bergara

PNV gezurretan ari da. Adierazpen guztiz faltsuak egin ditu PNVk inolaz ere justifika ezin daitekeen Errege Seminarioaren eta Arrizuriagaren arteko permutaren aurkako jarrera justifikatzen saiatzeko.

Alde batetik, ez da permuta egin ez izana Aranzadi Ikastolari konponbidea eman diona, PNVk dioen moduan. PNVk seminarioan aurreikusita zeukan auditorioa egin ez izana baizik. Permuta egiten bada, Aranzadik egun agindu zaion toki bera izango du Errege Seminarioan. Beraien auditorioa egin balitz, berriz, Aranzadi lekurik gabe legoke.

Bestetik, permuta egin ez izanak ez dio UNEDi inolako konponbiderik ematen. Momentu honetan, egingo diren obrak igogailua jartzea, komun berri bat egitea eta itoginak kentzea izango dira. Honek ez du zerikusirik permutarekin eta, are gutxiago, Bolognara egokitzeko beharrekin. UNEDek ez ditu aseko bere garapenerako beharrak Errege Seminarioan.

Azkenik, STOA enpresak egindako azterketan ondorioztatzen dena honako hau da: Bergarako herriaren historia, kultura, zientzia eta ondarea balio turistikoan jartzeko ezinbesteko elementua dela Errege Seminarioa proiektu honetarako erabiltzea, eta permuta ez gauzatzeak erabilerari hau oztopatu baino ez du egiten. Beraz, guztiz PNVk esaten duenaren kontra hitz egiten du STOAren proposamenak.

PNVk Arrizuriagan kultur etxea, liburutegia, taldeentzako lokalak egin nahi dituela dio. Ez du Arrizuriagako eraikina ezagutzen hori guztia bertan sartzeko asmotan badabil. Hala bai, eta bergararoi errealitatea ezkutatu nahi digu? Bestalde, jauregiaren kanpoaldean antolatuta nahi dituen kontzertuak etab. UNED bertan egonda ere egin daitezke, parkea Udalarena izango baita.

Arlo ekonomikoak berebiziko garrantzia daukala esaten du, baina ez da xehetasunetan sartzeko gauza. Bakarrik aipatzen du inork, inoiz, inon ikusi ez duen 6,5 milioi euroko aurrekontua duen birgaitze-proiektu bat Errege Seminarioa konpontzeko. Gezurretan ari da. Erakuts dezala publikoki non dagoen 6,5 milioiko aurrekontua duen proiektua.

Errege Seminarioa estrategikoa dela diote eta prest legokeela PNV beste egoera

eta baldintza batzuetan eraikina erosteko. Zertarako erosiko du Udalak Errege Seminarioa Aranzadi eta UNED bertan kokatuta, eliza baino gelditzen ez denean udal erabilerarako? Gezurretan aritzeaz gain, gestio txarrak egiten primerakoak direla erakusten dute baieztatzen honekin. PNVk lehen ere izan du aukera bat baino gehiago Errege Seminarioa eskuratze-ko eta muzin egin die aukera horiei. Bestela, galde diezaio-tela orain arteko jabea izan den Hazienda Ministerioari. Beti mesprexatu ditu Errege Seminarioa eskuratzeko eskura jarri zaizkion aukerak eta aukera paregabeak pasatzen utzi ditu behin baino gehiagotan PNVk. Eta orain beste batzuek erabiltzeko prest omen dago eraikina erosteko!

PNVk dio hiru urteren ondoren ez dakitela zein kultura-azpiegitura proposatzen dituen Gobernuak Errege Seminarioarako. Udalak aspaldi helarazi zion PNVri bere proposamena (2007ko udazkenean, hain zuzen ere); harrezkero, STOA enpresak proposamen hau garatu du eta PNVk badauka STOAren proposamenaren kopia. Edo berriz ari da gezurretan edo ez ditu udal dokumentuak irakurtzen eta, horregatik, ez daki zer proposatzen dugun. Gure iritzia da herritarrek nahasteko asmoz ari dela gezurretan PNV.

Bestalde, beharrezkoa ez den kasuetan inbertsiorik ez egitea erabaki zuzena dela dio PNVk. Hemen ere nahastu nahian ari dira: permutaren aldeko erabakia hartzeak ez du kosturik; bai, ordea, herritarrei bizkarra ematen beraiek bultzatzen duten gure osasunaren aurkako Gipuzkoako errauste-plantak, Abiadura Handiko Trenak, Superportuak... PNVrentzat azpiegitura erraldoiak dira beharrezkoak diren bakarrak eta inolaz ere ez dituzte beharrezko ikusten herritarren parte-hartzeak, kultura-ekipamenduak, jasangarritasuna eta abarrak.

Azkenik, hemendik 5 urtera exekutatu den proiektua lotuta uzteko, Udal Gobernuaren nahia ulergaitza dela diote. Gure iritzian, politikariorik gaurko eguna baino harantzago begiratzea dagokigu, gauzak estrategikoki aztertu eta epe luzearako erabakiak hartzea. Momentuan momentukoari erantzuteaz gainera, aurrera begira jartzen ez badira nekez lortuko dute etorkizunerako Bergara ondo diseinatzea.

Bukatzeke, adierazi nahi dugu Bergarako PNV dela permuta honen aurka azaldu den alderdi politikoa, eragile, talde eta eragindako bakarra.

Bergarako herriak, bertako eragileak, eragindakoak, talde politikoak, guztiak agertu dira permutaren alde. Bestalde, UNED Patronatuak berak ere ez du inolaz permutaren

aurkako arrazoirik eman.

Utz ditzala gezurrak alde batera edo bestela frogatu ditzala ematen dituen datu faltsuak. Ez dezala herria nahastu bere interesen alde.

PNV bere jarreraz hausnartu beharko luke, Foru Aldundia erabilita bergararion nahiaren aurka posizionatzea eta jardutea ez baita jarrera egokia, alderdikieriaz jokatzeko baizik. Zer pentsa eman beharko lioke gainontze-ko guztiok adostasunera iritsi garenean zergatik gelditu diren beraiek adostasun horretatik kanpo.

PNV alderdi interesak eta alderdi-egokorkeriak alde batera utzi eta Bergararen garapenaren alde jarri beharko luke, gure etorkizuna oztopatu beharrean. Herriari, herriko taldeei eta eragileei entzun beharko lieke; izan ere, herriak badaki zergatik eta zertarako nahi duen Seminarioa.

Aranzadi Ikastolak Ignacio Arriolari

Karmele Agirregabiria

(Aranzadi Ikastolako presidentea)
Bergara

2010eko maiatzaren 28an *Bete gabeko gehitxo, betekada galanta (EAJren erantzuna Iñigo Arregiri)* idatzi horretan, zergatia oso ondo ulertu gabe, Aranzadi Ikastolak egin ez dituen adierazpen batzuk txertatu dituzunez, argibideak eman beharrean gaude.

Aranzadi Ikastolako Artezkaritzako Kontseiluak ez ditu inoiz eta inon esan zuk aipatutakoak, ezta Zuzendaritzak ere. Aranzadi Ikastolak egin duen bakarra Errege Mintegiaren jabeari eraikina erabiltzeko baimena eskatzea izan da. Horrekin batera, Martinez Iralan dauden 10 taldeak eta hauek behar dituzten azpiegitura guztiak (laborategi, informatika gela, teknologia tailerra, ikasgelak...) Errege Mintegian sartu ahal izateko egin beharko litzatekeen obrarako baimena eskatu dio UNED Patronatuari.

Ez du Aranzadi Ikastolak inoiz eta inon aipatu permutarik gabe sar daitekeela ikastola guztia Errege Mintegian. Alderantziz, bai erakutsi du planoen bidez Aranzadi Ikastola osoa sartzeko behar den espazioa, eta bertan ikusten da UNEDek egin nahi duen zabalkunderako lekurik ez litzatekeela geldituko. Hau da, orain eraikina konpartitzen badugu ere, aurrerantzean biok izango dugu espazio premia eta biontzako ez egotearen arriskuaz eta honek sortzen digun kezka ohartarazi genuen UNED Patronatua.

Eskertuko genizuke, beraz, zure iritzia iritziz, gure ahotan ez jartzea inoiz, inon esan ez ditugunak.

Funtzionarioak

Arrate Landa Bidaburu

Arrasate

Maiatzaren 21eko GOIENKARIAn, Iban Aranzabalen *Funtzionarioa kexati, gainontzeke langileak?* irakurri ondoren jarraian aipatzen ditudan ideiak bururatu zitzaizkidan:

1. Ez dakit zer den funtzionario izatea, baina bai titulu hori duten eta ez duten bailarako eskola publikoetako langilea izatea eta ezagutzen dudalako esan dezaket, gehienek, dituzten ikasleei, kalitatezko hezkuntza euskalduna eskaintzeko egiten duten lana.

2. Argi dut irakaskuntzan, denean, publiko, pribatu, itunpekoan, asko dagoela hobetzeko, eta zer esanik ez funtzionarioetan, baina "alferrak" eta "inkonpetenteak" lanbide guztietan daude. Funtzionariotza publikoak ez du honen eskulibana.

3. Oso erraza da funtzionarioekin sartzeko "denon diruekin ordaintzen ditugulako" (funtzionario direnekin baita) ezer arrazoitu gabe eta inongo bereizketarik egin gabe.

4. Goian aipatu bezala, badago zer aldatu funtzionarioetan, baina ez da berdin gertatzen kooperatibetan? Nork eraman ditu kooperatiba batzuk gaur egun dauden egoerara? Krisiak bakarrik? Zer gertatzen da kooperatibetan dauden soldata diferentzia lotsagarriekin? Zer esan dezakegu kooperatiba batzuek duten perfil demokratiko eskasari buruz?

Badago bai zer aldatu eta zer eztabaidatu gure inguruan, baina hitz egiterakoan edo kasu, idazterakoan, faktore guztiak kontuan hartuta egitea eskatuko nuke.

Mintza eguna, Arrasaten, ekainaren 6an

Vanessa da Costa eta Tere Lopez

(Arrasateko Udal Euskaltegioko 2. mailako ikasleen izenean)
Arrasate

Ia hamar urte dira Mintzalaguna egitasmoa sortu zela. Donostian sortu zen lehen Mintzalaguna taldea eta helburu nagusia euskaraz hitz egitea zuten. Geroztik, Euskal Herri osora zabaldu dira horrelako taldeak, baita Arrasatera ere.

Horrelako ekimenei bultzada emateko asmoarekin Mintza eguna ospatu da azken 5 urteotan eta, aurten, Arrasateri tokatu zaien egun berezi horren antolaketa; euskaraz berba egiteaz gain, Arrasate ezagutzeko aukera ere izango dugu: historia, eraikinak...

Ekainaren 6an, domekan, guztiok zaudete gonbidatuta, guztion parte-hartzeak izugarri lagunduko du-eta igandeko

fiesta alaitzen. Primeran pasatuko dugu; beste herri batzuetako jendea ezagutuko dugu, berrikerian jardungo dugu, dantzari ibiliko gara, bapote jango dugu!

Oñatiko alkateari

Pedro Sologaitza, Jose Antonio Amundarain, Jabi Altube eta Jabier Arana
(Oñatiko LAB Helduak)
Oñati

LAB Helduak-ek 2010eko Gizarte Zerbitzuko aurrekontuari buruz eman dituen azalpenak oso haserre jarriarazi du Lurdes Idoiaga alkatea eta beste asmakizun ugariaren artean bere izen onaren aurkako kanpaina sorarazteko helburuarekin eginak direla esan du, baina, gure ustez, agintean dagoenaren ohiko erreakzioa eta kritika eraman ezinaren seinale dira horrelako adierazpenak.

Urte hasieran argitaratu zen 2010eko udal aurrekontua, eta, Gizarte Zerbitzuan %7,36ko

jaitsiera dagoela ikusita, LAB Helduak-ek Lurdes Idoiaga alkatearen adierazpenak salatu zituen, beste arlo guztietan behera egin zuela aurrekontuak baina Gizarte Zerbitzuan mantendu eta zenbait partida igo egin zirela esaten zuelako.

Eta %7,36ko jaitsiera justifikatzeko, San Martin egoitzako lanak bukatu zirelako omen zela esan zuen, baina LAB Helduak-ek frogatzen zuen San Martin egoitzako obrak kontuan hartu gabe ere Gizarte Zerbitzuko aurrekontua %5,39 gutxiago dela.

Gure informazio iturria herriko *Kontzejupetik* aldizkariak urtarileko alean zekarrena izan zen. Jaitsierak Departamentu Guztietan izenburuaren azpian eta laburbilduz esaten zuen: udal departamentu guztietan egon da jaitsiera iazko aurrekontuekiko.

Salbuespen bakarrak Langilegoaren Saila, Etxez Etxekako Laguntza Zerbitzua eta Pobrezia nahiz Larrialdietara zuzendutako diru atalak izan dira.

Beraz, garbi geratzen da aurrekontuaz ari garela eta ez beste zerbaitetaz, bai *Kontzeju-*

petik herriko aldirakaria eta baita LAB Helduak ere, zuk oso ondo dakizun moduan, alkate andrea.

Eta gainera, nahiz eta zuk zure kontrako kanpainaren barruan sartu, gure idatzian jarri ditugun atalez atalezko jaitsierak Udalak atera duen taulatik hartuta daude, ez dira guk asmatutakoak, eta, beraz, herritarrengan kezka sortzeko erabili nahi izan ditugula leporatzea gezurretan aritzea eta lotsagabe galanta izatea da.

Gertatzen dena da LAB Helduak-en azalpena indargabetu, desitxuratu eta zikintzeko asmoz 2010eko aurrekontu gaia kontestutik atera eta beste kontu bati helduaz 2009. urteko likidazioa hartuta aitzakiatzat, beste guztia estali, katramilatu eta hankaz gora jarri nahi duela Lurdes Idoiaga alkateak.

Horregatik, maiatzeko aldizkarian beste datu batzuk ateratzen dituzu argitara eta Gizarte Zerbitzuko arlo ezberdinen igoerak nabarmentzen dituzu, gureak gezurtatu nahian.

LAB Helduak-ek, berriz, 2010eko aurrekontuan diru gutxiago jartzeak ze onorio

ekar lezakeen Gizarte Zerbitzuko beharrei erantzuteko egiten du hausnarketa, eta, gainera, abiapuntu diferenteak dituzten datuak ezin litezkeela nahastu uste dugu. Gu aurrekontuaz ari gara legimitate guztiarekin udaletxeak berak emandako datuak kontuan hartuta, besterik ez.

Hala ere, pasa gaituzten alkateak atera dituen datu horietara eta azter dezagun 2009ko aurrekontuaren likidazioa.

Harrigarria baldin bada ere, eta norbaitek esplikatu behar luke nola den posible, Pobrezia dokumentu batean azaltzen da diru-partida batekin eta beste dokumentu batean, diferentzia handiz, beste diru-partida batekin.

Orain arte LAB Helduak-ek ezagutzen zuen dokumentuan Gastuak izenburua duena eta aurreko idatzian argitaratutako taulan eman genuenean zioen:

Pobrezia, aurrekontu orokorra: 2009an, 66306,24; 2010ean, 68222,26; DIF.2010-2009, 1916,02; %2010-2009, +2,89.

Orain, beste dokumentu batean, 2009ko Departamentu

eta Partidakako Balantzea (Aurrekontuaren Likidazioa) izena duen dokumentua hartu eta ikusiko dugu Gizarte Zerbitzuko arloan dioena:

Pobrezia: behin bet. aurr., 134.306,24; baimendua, 158.611,56; erabilia, 158.611,56; onart. oblig., 158.611,56; ordainketak, 158.611,56.

Beraz, 2009ko aurrekontuaren likidazio iturrira joan da, eta, gastatu zena kontuan hartuta, aurten 2010ean Pobrezia dauden herritarren laguntzarako diru-partidak -%56,98ko jaitsiera izango du.

Datu honek esan nahi du Pobrezia dauden pertsonen laguntzeko atalak igo egin beharrean behera egin duela nabarmen eta gero eta premia handiagoa dagoen garai hauetan, ez dela nahiko dirurik izango behar gorrian dauden pertsonen laguntzeko.

Beraz, eta bukatzeko, datuek bakoitza bere tokian jartzeko indarra baldin badute, Oñatiko alkateari zer pentsa eman beharko lioke azken datu honek, eta bide batez eskatzen diogu berea ondo egin dezala eta ez dezala jarraitu besteen lana zikintzen.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Ibarra kalea 6
20570 BERGARA



Telefonoa:
943 25 05 05



Faxa:
943 25 05 12



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

DEBAGOIENEAN LANBIDE HEZIKETA

AURREMATRIKULA / Maiatzaren 31tik Ekainaren 11ra • MATRIKULA / Uztailaren 7tik 13ra



ARETXABALETAN



Erdi Maila:


- Erizaintzako zaintza osagarriak
- Mekanizazioa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Karrozeria
- Ibilgailuen elektromekanika

Goi Maila:

- Metal eraikuntzak
- Galdaketa eta pulbimetalurgia bidezko produkzioa

ALE - Aretxabaleta Lanbide Eskola
Etxebarri auzoa, z/g - 22 Pk. • 20550 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 79 00 / 943 79 79 43
ia@iaretxabaleta.com • www.iaetxabaleta.com

BERGARAN



Erdi Maila:

- Mekanizazioa
- Administrazio kudeaketa
- Instalazio elektrikoak eta automatikoak

Goi Maila:

- Diseinua fabrikazio mekanikoan
- Administrazioa eta finantzak
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa

Espezializazio Graduondokoa:

- Hotzeko estanzak

Miguel Altuna GLHBI, Bergara
Ibargarai, 1 • 20570 Bergara
Tel.: 943 76 24 91 / 943 76 38 40
imaltuna@sarenet.es • www.imaltuna.com

OÑATIN



Batxilergoa (Matrikula / Uztailaren 1etik 6ra):

- Zientzia Teknologia
- Giza eta Gizarte Zientziak

Heziketa zikloak:

- Mekanizazioa
- Linea Eroanbideen eta Makinen Mantenu Elektromekanika
- Natur Ingurunean Kirol ekingen gidaritza

RM Zuazola - Larraña Institutua
San Lorenzo, z/g • 20560 Oñati
Tel.: 943 78 21 50
onatikobhi@goieskola.net • www.onati.net

**zabalik**

Juan Martin Elexpuru

Halaxe zalakuan

Orduan halaxe zalakuan bizi giñan". Zenbat aldiz entzun ete dogu esaldi hau edade puxkat daukagunok. Edade haundiko jentian grabaziñuak entzutia tokau jat lanagatik aspaldixan, eta esaldixa behin eta berriz azaltzen da.

Azkena, Atxabaletako basarri punta bateko andria gazteta-kontuak kontatzen: eskolara eguraldi txarra eitten zebanien joaten zien bakarrik, bestela basarrixan ittulan edo ganauzain.

Uhezabari entregatzen zotsen hartzen zebeñ ixia gari guztia, eta etxerako artua bakarrik geratzen jakuen. Abadiai be urtian bi aldiz jenerua, eta onenetik gainera: "Hamarrenak eta primiziaik".

Diño bere aitta eta amari abadiak Gure Jauna ukatu egin zotsela ezkontza egunian, ordainketak bihar bezela ez egitiagatik. Beste abade batek egindako proposamen lizuna, bera ezkonberri zala. Gero, gainera, harekin konfesau bihar eta dana kontau bihar. Eta dana pekatua, pentsamentuzkuak be mortalak.

Halaxe zalakuan. "Besterik ezagutu ez eta/ bizitzaren zenbait gauza eder eskapatzen ari...", diño Mikel Laboaren kanta batek. Esan ohi da pateretan-eta Afrikatik datozen etorkin asko be telebistan Lehen Mundu aberatsaren irudixak ikusi dittuelako etortzen diela, ez hainbeste gosiagatik. Euren "halaxe zalakuan" gainditu dabelako.

Guk "hola dalakuan?" entzun dogu gehixago. "Ze, mutillak? Eguerdiko ordubatak eta oindio ohian? Hola dalakuan!?" Ero-sotasun haundixuan hazi garenok, eta zer esanik ez belaunaldi gaztiauak, "hola dalakuan" gare. Baiña illiak tente jartzeko moduko berrixak dauzkagu egunero, eta inoiz burutik pasatzen jaku gauziak sasoi baten onera egin daben moduan txarrera be egin leikela.

usteak uste

Mireia Bikuña

Kantu onena aukeratzen dute?

Aurreko zapatuan Eurovision lehiaketa ikusi nuen. Ez nituen kantu guztiak entzun, baina botazioan harri eta zur geratu nintzen. Herri bakoitzak 8, 10 eta 12 puntuak banatu aurretik, Television Españolako esatariak bazekien norendako izango ziren. Kantu onena aukeratzen dute edo herri bakoitzak dituen hartu-emanen arabera banatzen dituzte puntuak? Nik bigarrenaren alde egingo nuke. Alemaniako kantua izan zen onena, edo, behintzat, puntu gehien batu zituen. Entzun duzue *Satellite* kantua? Onena izan zen?

marrazkiz

Alex Ugalde

**blog-top**

"Tentsioa" abortuaren inguruan

Maite Asensio

<http://berria.info/blogak/generoa/>

Politikarien artean tentsioa sortzen omen du abortuaren gaiak. Bitxia da, uste bainuen eztabaida hori gaintuta zegoela; hau da, biztanleriaren eta indar politikoen gehiengo zabal batek (kontserbadoreen artean ere bai, agian baikorregia nintzen) barneratuta zuela haurdunaldia eteteo eskubidea, inertiagatik bada ere. Hego Euskal Herrian 1985eko legea martxan jarri zenetik, agerian geratu da araudi hori errealitatearekin bat ez datorren beste plano batean egon dela; hots, ez duela emakumeen arazo eta beharrezanez erantzuteko tresnarik eman.

Horren seinale da milaka emakumek (taratean abortuaren aurka egondako asko eta asko) haurdunaldia eten dutela legeak ezarritako baldintzetatik kanpo, gezurrak esanez, bide batez, osasungintzako langileek haien jarduna ere arriskuan jarri

dute. Hau da, haurdunaldiaren etetea "ohiko praktika" bihurtu da, baina klandestinitatean.

Eta Hegoaldean indarrean jartzekotan den lege berriak tentsioak sortzen ditu politikarien artean. Hala aitortu du Rafael Bengoa Jaurlaritzako Osasun sailburuak. Tentsio horren seinale, PPK eta Nafarroako Gobernuak legeari jarritako helegiteak. Eta tentsio horren ondorioz, legea alda daiteke, Espainiako Kongresuan eta Senatuan aspaldi onartuta egon arren. Hau da, oraindik ez dakigu zertan geratuko den 25 urtean sexu eta ugalketa eskubideen alorrean lortutako aurrerapauso bakanetakoa.

Abortuaren Legeak tentsioak sortu ditu politikarien artean. Bada, niri berdin zait. Politikariak herritarron zerbitzura baldin badaude, errepara diezaietela herritarron beharrezano, amatasuna (eta aitatasuna) libreki hautatzeko eta bizitzeko eskaerari, haurdunaldia berme guztiekin eta estigmatik gabe eten ahal izateko aldarriei, biztanleriaren erdiari (emakumeak biztanleriaren erdia baikara) bere gorputzaren gainean erabakitze-ko eskubidea ukatzen jarraitu aurretik.

koplak

Enaitz Alustiza

Palestina eta Israel

Aste honetan berriro ere albiste izan da Gaza, inguru hortan bizi irautea ez da batere erraza.

Palestinara laguntzarekin sei itsasontzi inguru, ta Israelek eraso egin! Ez hanka eta ez buru...

Eraso honek utziak ditu ia dozena hildako, baina ez da ezer pasa gehienak turkiarrak direlako.

Nazioarteko ahotsak nahiko ixilik gelditu dira, protesta beti joan da dolar kantitatean neurritan.

Herri juduan naziek utzi zuten aurrez arrastoa, eta begira, hau ez ote da bigarren holokaustoa?

Israelek berdin jarraitzen badu ta hilketek egin gora, biztanleak hil ta Palestina odolustu egingo da.

Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • E05 Basabe Poligonoa • 20550 ARETXABALETAKO Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Monika Belastegi Salletako arduradunak Leire Kortabarria (Herriak eta Goienkaria), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) Oinarritzako diseinua Goio Arana Maketazioa Oxel Arrieta eta Imanol Soriano Publizitatea Mireia Larrañaga, Igone Osinaga, Ziorza Martin, Edurne Gorosabel, Aintzane Muruamendiaraz Testuen zuzenketa Sergio Azkarate Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Ibarra kalea 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxia • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETAKO 20550 Durrana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Postea: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 20.000 ale • Difusioa: 19.724 ale.



OID erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK



Eusko Jaurlaritza



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Itxaropentsu da Lokarriko koordinatzailea egoera berriarekin: azkeneko hilabeteotan aurreratu den guztiarekin, nazioarteko 20 adituk euskal gatazka konpontzeko eman duten babetarekin eta ezker abertzalearen estrategia "atzerazineko" berriarekin. Hala ere, berandu baina lehen, ETak lehenbizi eta Zapaterok ondoren erantzun egokia eman beharko dutela dio.

Paul Rios > Lokarriko koordinatzailea

"ETak erantzuten ez badu, usteldu egingo da Bruselako adierazpena"

ENEKO AZKARATE > ARRASATE

Bruselako agiriarekin bat egin eta haren oinarriak herriz herri zabaltzen dihardu Paul Rios Lokarriko koordinatzailea. Azkenaldian, Interneten ere buru-belarri dihardu, bake, akordio eta herri galdeketa alde lanean.

Gatazka konpontzen adituak diren 20 eragilek babestutako Bruselako adierazpenarekin bat egin du Lokarrik. Zergatik?

Hogei aditu horiek ospe handiko pertsonak dira nazioartean eta euren izena arriskuan ipini dute euskal gatazkaren konponbidean laguntzeko. Eskertzekoa da. Geure ardura da bakea lortzea, baina nazioarteko aditu horien babesa oso-oso lagungarria da.

Bake prozesuari Bai diozue abian jarri duzuen kanpainan...

Bakea behar dugula esateko modu bat da eta uste dugu bizi dugun egoera aukera ezin hobea dela beste bake prozesu bat abiatzeko. Une honetan, aukera hori ahul samarra da, baina sendotu egin behar da, eta, horretarako, Bruselako adierazpenak dioena betetzea da onena: ETak su-eten iraunkor eta guztiz egiaztagarria iragartzea eta, bestetik, Espainiako Gobernuak erantzun egokia ematea.

Bruselako adierazpenaren harira Rubalcaba Barne Ministroak esan zuen Batasunaren aholkulariak direla adierazpen hori sinatu duten 20 lagunak. Zer iritzi duzu?

Ares eta Basagoiti ere saiatu dira nazioarteko aditu horiek barregarri uzten edo iraintzen. Gobernuak, une honetan, eroso dago: ETA ahul dago; objektiboki, jendartean, Batasunaren legez kanporatzeagatik, ez da ezer larri gertatu... Eta Espainiako Gobernuaren asmoa da ETA garaitzea. Bruselako adierazpenak, ostera, proposatzen du beste bide bat bakea lortzeko: denon arteko elkarrizketa, demokrazia sakontzea... Dena dela, ETak su-eten iragartzen badu Espainiako Gobernuak estrategia aldatu beharko du eta erantzun erakitzaile bat eman beharko du.

Bake prozesua abiatzeko, zer egin beharko lukete bi alde nagusiek?

Lehenik eta behin, ETak su-eten iragarri. Ondoren, Espai-

niako Gobernuak erantzun erakitzaile bat eman: ETari eta Bruselako adierazpenari. Gobernuak bi modutara egin dezake hori: batetik, ezker abertzale legez kanporatua legeztatuz; bestetik, preso-egoera hobetuz.

Zelan baloratzen dituzu ezker abertzale legez kanporatuak azken hilabeteotan egin dituen urratsak?

Alderdi politiko eta jendartearen zati batek gehiago eskatzen du, baina, gutxienez, estrategia erabat aldatu du ezker abertzaleak. Onartu ditu Mitchel printzipioak, bide politiko eta demokratikoen alde bakarrik egin du, ETaren biolentzia akatsa dela esan du eta, amaitzeko, eskatu die ETari eta Espainiako Gobernuari, modu erakitzailean erantzuteko Bruselako adierazpenari. Horrekin bakarrik beste egoera baten gaude, erabat berria. Iazko udan egoera oso bestelakoa zen: tentsioa, blokeoa, indarkeria, ETaren atentatuak...

ETak, aurki, adierazpen erabakigarri bat egingo duela uste duzu?

Ez dakit. Beharko luke. Ez dago beste aukerarik. Une honetan badaukagu aukera bat eta ETak aurki erantzunik ematen ez badu, usteldu egingo dira Bruselako adierazpena eta egoera berri hau.

Askok aldatu da egoera azken urtebetean?

Erabat. Orain itxaropentsuago gaude. Eta espero dut datozen hilabeteotan hobeto egotea. Ezker abertzalearen estrategia berria atzerazina da eta logikoa da pentsatzea ETak horri dagokion erantzuna emango duela. Hori espero dut. Jakitun naiz arazo batzuk badirela: atxiloketak, legez kanporaketak, mehatxuak e.a., baina nazioarteko adituen laguntza horrekin buelta emango diogula uste dut. Bestela, zer?

Espainiako Gobernuak eta ETA harremanetan dabilta Mayor Orejak eta Basagoitik esan duten moduan?

Ez daukat daturik hori esateko. Ulertzen dut PPren estrategia. Izan ere, hurrengo hilabeteotan bake prozesua abiatzen bada, esan ahal izango du: "Ikusi? Arrazoiak geneukan, Zapaterok iruzurra egiten dihardu, ETarekin negoziatzen dabil...". Hori guztia Espainian botoak lortze-



Paul Rios, martitzenean, Arrasaten.

ENEKO AZKARATE

BAKERAKO HEZKUNTZA PLANA

"Irakasle edo gurasoekin berba egiten baduzu, beldurrak eta zalantzak handiak dira"

HERRI GALDEKETA

"Alderdien arteko akordioaren ostean, herriari galdetu beharko zaio"

arren. PPK aldatu egin beharko luke estrategia eta zentzu handiagoarekin jardun.

Poliziak azken hilabeteotan egin dituen atxiloketek -ustezko ETako buruak atxilotu ditu- erraztu egingo dute ETak armei uko egitea?

Zeinek daki? Batzuen ustez, bai; beste batzuen ustez, ez... Dakidana da atxiloketak atxiloketa ezker abertzaleak eutsi egin diola estrategiari.

Urtebete barru egingo diren

udal eta foru hauteskundeetan normal parte hartu ahal izango du ezker abertzaleak?

Oso zaila izango da. Daukagun egoerarekin, seguruenik ez. Baina su-eten egotea bada edo ezker abertzaleak ETaren biolentzia gaitzesten badu, egoera guztiz aldatuko da.

Azkeneko ustezko ETako buruak, Karrera eta hauek, Baionan atxilotu zituzten. Arraroa ez da?

Bai. Aurrekoak Frantzian barrena atxilotu zituzten eta Iparraldean erabat kontrolpean dauka poliziak. Hortaz, zergatik hartu zuten arrisku hori ETakoek? Zertarako zeuden han? Batzartuta zeuden? Beste batzuekin batzartzeko asmoarekin?

Ze iritzi daukazu Eusko Jaurlaritzaren Bakerako Hezkuntza Planaren gainean?


Filtrazioen bidez jakin izan ditugu asmoak eta alderdi politikoak, jendarte taldeak, inplikatuak... atzetik ibili gara. Une honetan, PSE-EE, PP eta EAJ-ren artean lortu nahi du adostasuna Lopezek, baina gainerako alderdiek? Gainera, plan berriaren oinarria da indarkeria deslegitimizatzea. Baina, esate baterako, ni torturaren aurka nago eta behin eta berriro salatzen dut hori. Eta, ondorioz, indarkeriaren alde nago? Bestalde, planaren garapena ikastetxeen eskuetan lagatzen da. Zelan kudeatzen da hori? Eta, amaitzeko: aipatzen da biktinek egon behar dutela planaren erdian, baina biktima batzuk bakarrik, ETarenak. Irakasleekin edo guraso elkartekoekin berba egiten baduzu, beldurrak eta zalantzak handiak dira. Penagarria izan da plan berri horren kudeaketa. Ez dago argi zer den plan hori.

Herri galdeketa bultzatzen edo sustatzen saiatu da Lokarri azkeneko urteotan. Zertan da asmo hori?

Lokarriren agendan dago herri galdeketa. Egokiena da herri galdeketa egitea, alde aurreko akordio bat jendarteak onartzeko. Etorbizunean ere, alderdien arteko akordioaren ostean, herriari galdetu beharko zaio, hark du-eta azken berba.

goiena.net/bideoak
Elkarrizketa osoa, webgunean.

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

LORENZO M. JOOSTEN

Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behe / 943 79 29 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENKO ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA ISABEL

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOIEN VICTOR

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otorala lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

ASTIAZARAN SOLOZABAL

Bergara / Iparragirre 1, behe / 943 76 27 95

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskoziuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE IRURETA ANE MAITE

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behe / 620 12 48 46 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

OPTIKAK

BEGIENDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

INSTITUTO OPTICO

Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

ORTOPEDIA

ORTO LAGUN

Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

AREDHANA YOGA ETA GESTALT

PSIKOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe / 943 76 11 38 / 639 23 57 53

Herriak

Arrasate > 12-15 Bergara > 16-19 Oñati > 22-23 Aretxabaleta > 24-25 Eskoriatza > 26 Antzuola > 27 Aramaio > 28 Elgeta > 29 Gatzaga > 29



> **OÑATI**
Irailean inauguratuko dute Arantzazuko auzo etxea > 22



> **ARETXABALETA**
Abesbatzan ibili direnak omentzeko kontzertua egingo dute domekan > 25



> **ANTZUOLA**
Torresoroan osasun etxea ipiniko du Osakidetza > 27



> **ELGETA**
Ozkarbiren lokal berria ikusiko dute bazkideek etzi, domeka > 29



Umeak Gatzagako pilotalekuan jolasean. Argazkian ikusten den beheko parteko estalkia berri nahi du Udalak.

MIRARI ALTUE

LEINTZ GATZAGA > AZPIEGITURAK

Pilotalekua konpontzeko lanek hartuko dute udal inbertsio osoa

Urteotan dabil Udala pilotalekua txukundu nahian; estalkia aldatu egin behar zaio

Udal aurrekontuan iaiztik gordetako 50.000 euro hartzen ditu proiektu horrek

LEIRE KORTABARRIA > LEINTZ GATZAGA
Gatzagako aurrekontuak joan den asteko egunean onartu zituzten, eta horrekin lotuta erabaki zuen Udalak zein izango den aurten aurrera eramango duten proiektu bakarra: herriko pilotalekua konpontzea, horretan 110.000 euro inbertituta. Udalaren egoera ekonomikoak inbertsio bakarra egiteko aukera ematen du, eta herrirako hain garrantzitsua den pilotalekuari ematea erabaki dute. Hain zuzen, horretarako gordeta zeuzkaten iaiztik 50.000 euro, eta Foru Aldundiaren Landagipuzkoa programaren eskutik beste 60.000 euro jasoko dituzte. Elkarlan hori bermatzen duen hitzarmena ere joan den asteko osoko bilkuran berretsi zuen Udalak. Pilotalekuko obren proiektua eginda dauka Udalak, eta Foru Aldundiak ere ontzat eman du.

JAIK ETA GERO
Pilotalekua konpontzeko asmoak baditu sei bat urte. Obra batzuk egin zituzten bere garaian; hala, goiko partea estali zuten. Horrez gain, unean uneko premiak konpontzen joan da Udala, lan txikiagoak eginda. Beheko partea itxi nahi dute orain. Iaz onartu zuen Foru Aldundiak proiektu hori Landagipuzkoa programaren barruan babestea.

Konponketa lan horiek ezinbestekoak dira. Lehen goiko zatia egin zuten, eta orain, "beheko zatia goikoa dagoen moduan" utzi nahi du Udalak, Eusebio Villar alkatearen esanetan. Urteekin, pilotalekuko estalkiak usteldu egin dira eta berri egin behar dira.

Lanak Etorlur Gipuzkoako Lurrak enpresak esleitzen ditu, Landagipuzkoa proiektuko lan

guztiekin egiten den moduan. Gatzagako Udalak eskaera bat egin dio Etorlurri: "Obrak herriko jaien ondoren hasteko esleitu ditzala eskatu diogu, jaietan pilotalekua erabili ahal izateko", esan du alkateak. Irail hasieran ospatzen dituzte jai nagusiak, Dorletako Amaren ohorezkoak.

Lanak hasi bitartean, pilotalekuak guztiz segurua izaten jarraitzen du.

HERRIRAKO OSO GARRANTZITSUA
Pilotalekua oso azpiegitura garrantzitsua da Gatzagan. Villarek dioen moduan, "herriko ekintza gehienak han egiten dira, eta askotariko ekintzak, gainera: herri bazkaritarako erabiltzen da, mendizaleek ere erabiltzen dute; umeak hara joaten dira jolastera, eta eguraldi txarra egiten duenean, bereziki, hara joaten da jendea".

LABUR

Gatzagaingo proiektua, kolokan

Udalak ez dio oraindik uko egin nahi Landagipuzkoarekin hitzartuta daukan beste proiektuari, Gatzagainera ura eroatekoari, alegia, nahiz eta ez daukan bere zatia ordaintzeko dirurik, eta hala aitortu zuen joan den astean, aurrekontuak onartzeko momentuan. Udalak onartzen digu oraindik ez dakiela nondik lor dezakeen dirua, baina aukera horrekin "lanean" jarraitzen duela.

Proiektua garestia da: iaz, onartu zenean, 566.000 euro pasako aurrekontua zuen, Etorlurren arabera, eta 2009an Udalak aurtengo utzi zuen. Diru-iturririk topatu ezean, galdu egingo du proiektua.

DATUA

60.000

EURO

Landagipuzkoa egitasmoaren barruan, Foru Aldundiak 60.000 euro eman dizkio pilotalekua konpontzeko proiektuari. Gatzagako Udalak ipini ditu gainerako 50.000 euroak.

EKONOMIA > GASTUA MURRIZTEKO NEURRIAK

Urte zaila ikusten dute Arrasateko Udalarendako

Kreditua eskatzeko aurtengo debekua onartuko balute, hiru milioi gutxiago izango luke Udalak

UBANE MADERA > ARRASATE

Oraindik argitu barik dago gastua murrizteko Espainiako Gobernuaren neurriak noiz aplikatuko dituzten Arrasateko Udalean, ez dutelako halako informazio jakinarazi. Hala ere, "komunikabideen eta buletinaren bitartez" eskuratutako informazioarengatik, udal agintariak

badakite eragin handia izango duela funtzionarioen soldaten jaitsierak eta baita inolako mailerik eskatu ezin izanak ere. "Madrilgo mendekotasunaren adierazle garbiada. Ez bagaitu itotzen, gure inbertsio maila zero edo zeroren parekoa izango da, adierazi du Ino Galparsoro alkateak.



Proiektu asko egin barik uzteko arriskuan daude; argazkian, obra bat.

U.M.

"EGOERA ZAIL SAMARRA"

Neurrikin aurreratuko dutena inbertsioetarako erabiltzeko proposamenak, berriz, Arrasaten ez du eraginik izango. "Gutxiago gastatzen bada, mailegu txikiagoa eskatuko da, edo sarreraren murriz-

keta konpentsatzeko erabiliko da, ez besterik". Are gehiago, "egoera zail samarra pasatu behar" izango direla azpimarratu du alkateak: "Hainbat proiektu buruan eduki eta ezin martxan ipini... konplikazioak ekarriko dizkigu".

ZERGA GEHIENAK KANPORA

Izan ere, alkateak azpimarratu duen moduan, gaur egungo zerga banaketaren arabera, udalek zergen bidez jasotako diruaren %10 baino gutxiago eskuratzen dute: "Zergetatik jasotzen den diruaren %10 zuzenean Madrilera doa; %60-65 inguru, Jauralaritzara; Aldundia %20 pasarekin geratzen da; eta udalok ez gara ezta %10era iristen. Eta %10 baino gutxiago jasotzen dugunok gehiago lotu... Politika partehartzailea eta herriarekin gertu dagoena egiteko ez du ematen sistematik onena. Diru banaketa hori udalekiko guztiz injustua da. Eta Diputazioan zerga bilketa berarekin segitzeko itxaropena dutenean, baina prudentziaz guri gastua %5 jaitzaraztea iruditzen zait injerentzia dela".

UDAL LEGEA ALDARRIKATU

Horrela, Udal Legearen beharra aldarrikatu du alkateak, azken urteotan egin izan duten moduan: "Konturatu behar dute herrietan geroz eta gauza gehiagori erantzun behar diegula eta horretarako zailtasunak ditugula; eskumenak dauzkagu eta ez daukagu dirurik horiei erantzuteko".



C. GALLASTEGI

Bi bakarrik geratzen dira

Udalak lau zuhaixka ipini zituen parrokiaren atarian autoek aparka ez dezaten. Bada, bi besterik ez da geratzen. "Duela pare bat aste ipurditik atera eta Monterronera eraman zuten bat; orain, adarrak apurtu dizkiote beste bati", esan du Patxi Arburua zinegotziak. Bestalde, gertaera hori dela-eta irakurle batek, haserre, hau adierazi gura du: "Arrasatek errespetu handiagoa eta altzari publikoen kontrol handiagoa behar du".

OSOKO BILKURA > ETXEBIZITZAK

Zerrajerako babes sozialeko etxeen gaia, osoko bilkuran

Ezustekorik ezean, onartu egingo dute 140 etxebizitza egitea baimentzen duen ordenazioa

U.M. > ARRASATE

Osokoak onartu eta Arrasateko Udalak obra lizentzia ematen badu, datorren urtean hasiko dira eraikitzen Zerrajeran babes ofizialeko 140 etxebizitza. "Obra lizentzia ekainean ematen badigute, lanak uda aurretik lizitatuko ditugu", zehaztu du Aitor Lamarianok, Visesak prentsa arduradunak. Horrek esan gura du "2011ko lehen hiruhilekoan" hasiko dituztela obrak, 24 hilabetean bukatzeko.

Visesa elkarte publikoak dauka promozio horren arduraria. Proiektua idazten dabilta eta "ekain-uztailean bukatzea" dute aurreikusita,

ANBULATORIOAREN ATZEAN

Jauralaritzaren promozio horretan 140 etxebizitza eraiki gura dituzte: 90 etxebizitza, 60-65 metro karratu eta bi logelakoak; 36 etxebizitza, 75 metro karratukoak, eta hiru logelakoak; eta gela bakarreko 14 etxebizitza, 45-50 metro karratukoak.

Alokairu sozialean merkaturatuko dituzte etxeok, orain arte moduan, zozketa bidez, Etxebiden izena emanda dutenen artean.

Anbulatorioaren atzeko aldean eraikiko dituzte. Inguruko urbanizazioa gertu dute.

POLITIKA

Sozialistek kritikatu, Udalak erantzun

U.M. > ARRASATE

Sozialisten ustez, Arrasateko Gobernuaren agintaldia hutstala izan da. Aritz Arrieta bozeramailearen esanetan, "alferrik galdutako hiru urte" izan dira eta Udalak gainerako erakundeekin harremanak berreskura ditzala eskatu du, besteak beste, "bailarako herri garrantzitsuena bezala pisua galtzen" dabilelako.

Ino Galparsoro alkateak, berriz, "hauteskunde giroan" kokatu ditu sozialisten salaketa horiek; eta aditzera eman du "herriak inork baino hobeto" dakiela zertan dabilen Udal Gobernuak.

Carrascal
aroztegia

SUKALDERAKO ALTZARIAK
BAINURAKO ALTZARIAK
HORMA ARMAIRUAK
BESTELAKO ARMAIRUAK

Ekutio 4, Pab. 14-15
Uribarri Auzoa
20500 Arrasate
Tel./Faxa: 943 79 01 82
scarrasc_1@infonegocio.com

FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA



ESKAINITZA BEREZIAK!

UGARAN
Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

ELKARTASUNA > GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEAK

Herri txiroenen arazoak ezagutzera emateko egun osoko egitaraua prestatu dute

Gobernuz kanpoko erakundeek XII. Elkartasun Eguna antolatu dute biharko; 10:00etatik 20:00etara egongo da zer egin Seber Altube plazan

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE
Gobernuz kanpoko erakundeen eskutik, XII. Elkartasun Eguna egingo dute bihar Arrasaten. Herri txiroenen arazoak herritarrei ezagutzera ematea du helburu ekimenak eta Indiako Ankurreko umezurtz-etxera bideratu dute irabazten den dirua. Egun

osorako egitaraua eta hainbat jardura antolatu dituzte. Jardueren artean daude bidezko merkataritza, te dastaketa, norberaren izena arabieraz nola den jakiteko aukera, Ankur umezurtzegiaren aldeko tonbola eta antolatzaileen erakusketa. Horrez gainera, aurten ere euro solidarioa eta Ariz-

mendi ikastolako ikasleen eskutik hezkuntzaren aldeko gola egingo dute.

IBAI-ARTERI ESKERRAK
Bestalde, antolatzaileek Ibai-Arte merkataritza elkartearen laguntza eskertu gura dute. Diotenez, Ibai-Arteren laguntza barik "ezi-

nezkoa" litzateke Ankur proiektuaren aldeko tonbola antolatzea. Iaz ere bertara zuzendu zen dirua. Umezurtz-etxe horretan 240 haur bizi dira egun eta Elkartasun Egunaren antolatzaileek adierazi dute orain "pozik" daudela: "Etorrizun itxaropentsua dute, oinarriko beharrak asetzeaz gain, bizitza duina eraman ahal izateko hezkuntza egokia jasotzen ari dira-eta". Hain zuzen, tonbolaren zozketa izango da eguneko azken ekitaldia (20:30), Eroski Bidaien eskutik. 10:00etatik aurrera izango da txartelak erosteko aukera.

Zozketaren aurretik, baina, musika, magia, dantza eta jolasak izango dira, besteak beste, Seber Altube plazan, 10:00etatik 20:00etara. Txatxilipurdik, Txikitxu dantza taldeak, Txan magoak -aurten ere ez du hutsik egingo- eta Arrasate Musikalek egin dute bat ekimenarekin.

Ekitaldien egitaraua

10:00 XII. Elkartasun Egunaren irekiera ekitaldia
11:00 Haur jolasak Txatxilipurdik elkartearen eskutik.
12:30 Arrasateko Trikitixa Eskolaren eskutik erakustaldia.
13:00 Txikitxu dantza taldearen emanaldia.
17:00 Txan magoaren emanaldia.
19:30 Arrasate Musikaleko banda txikiaren emanaldia
Zuzendaria: Gaizka Gaztelurrutia.
20:30 Eroski Bidaiak eskainitako sariaren zozketa.

OHARRA: ekitaldi guztiak Seber Altube plazan izango dira.

ELKARTASUNA > EUSKAL PRESOKAK

Aldarrikapen eguna: zuzeneko musikaz blai, beste behin

16 talde zuzenean, trikiti-poteoa, parrillada eta manifestazioa, presoen eskubideen alde

J.B. > ARRASATE
Presoen eskubideen aldeko Elkartasun Egunak bosgarren edizioa beteko du bihar. Euskal presoen egoera eta bereziki Arrasateko presoek bizi duten "egoera larria" salatzeke egun osorako aldarrikapen eguna antolatu du Portalaira topaguneak, beste behin. Martitzenean egin zuten egitaraua aurkezteko prentsaurrekoa; 12:00etan hasita eta goizaldeko ordu biak arte hainbat ekitaldi izango dira. Biteri plazatik hasita bertsoz eta

trikitik doinuz lagundutako poteoa egingo dute. Gero, 14:30ean, herri parrillada izango da Biterin. Arratsaldean, noski, tabernetako musika maratoiak ez du hutsik egingo: 12 taldek joko dute 11 tabernatan (Iratin bi taldek joko dute; ikus beheko taula).

KONTZERTU HANDIAK GAZTETXEAN
19:30ean manifestazioa egingo dute eta gero ekitaldia Monterronen. Azkenik, gaueko kontzertuak gasetxean egingo dituzte aurten: Galiziako Skarmiento, Elorrioko Iheskide, Oñatiko Show Business eta itzulera motz bezain indartsuarekin datozen Arrasateko Garagartza auzoko Kañeria 13 igoiko dira agertokira. Sarrera lau euro ordaindu beharko da.

Tabernetako kontzertuak

17:00etan
Ekaitz: Goienetxe Anaiak (Ultzama).
Irti: Aggressive Combat (Arrasate).
Ederra: Shycosonics (Arrasate).
Basati: Fight to life (Arrasate).
Jai-Zale: Sermonds (Elorrio).
Extoste: Crisis (Bermeo).

18:00etan
Iluntz: La Betty Travan (Ultzama).
Irti: Asfiksia (Arrasate).
Taupa: Mendez Gerrilla (Beasain).
Gure Leku: Runbatxou (Bilbo).
Haizea: Xasta (Gasteiz).
DAT: Interprete Desconocido (Arrasate)

> JAIKAK
Atzo hasi zen arren, egun potoloenak falta zaizkio garagardo jaiari

Atzo, eguena, zabaldu zuten garagardo jaiaren karpa. Oraindik, baina, egun potoloenak falta zaizkio azokari. Aurten berritasuna da antolatzaileek herriko bakar-lari eta folk taldeei aukera eman dietela karpan jotzeko. Bestalde, Ibai-Arte elkarteak dendetan txartelak zozketatuko dituzte karpan erabiltzeko. Aurten 1.750 litro garagardo inguru izango dira.

> TXATXILIPURDI
'Paintball'-ean jolastu eta hondartzara gero, plan ezin hobea biharko


Txatxilipurdik *gaztetxeroendako* irteera antolatu du biharko. Izan ere, gazte txokoetako gazte-oxoak Lasturrera joango dira *paintball*-ean jolastera. Horren ostean hondartzara joango dira eta bertan pasako dute arratsaldea. Gazte txokoetan edo Txatxilipurdin eman behar da izena; prezioa da 15 euro. 10:00etan irtengo dira, Garibaitik.

BERRITASUNA GORPUTZ TRATAMENDUETAN

KABITAZIOA:

- Koipeari eta zelulitisari aurre egiteko teknika berria da eta emaitza eraginkorrak ditu.
- Frekuentzia txikiko ultrasoinuekin adipositate mintza apurtzen du eta bertan dagoen koipea desegin.

Adipositatearen bat duten pertsona argaletan ere eraginkorra da.



Ehun adiposoa Slim SYstem Cell metodoarekin tratamendua egin aurretik.

TRATATZEN DIREN GUNEAK:

- Sabelaldea eta mokorrak
- Kanpo trokantera
- Gluteoak
- Belaunak

Tratamenduaren ondoren adipositateak nabarmen txikitzen dira.



LEHEN KONTSULTA DOAN

AG
Amagara

nº R.P.S. 297 / 05.

Erdiko kalea 54 behe 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09

ATLETISMOA > PERTIKA SALTOA

Malen Ruiz de Azuak marka ezarri du: 3,50 metro

Anoetako saltoarekin Arrasatekoak Clara Amatek zuen nazional mailako errekorra gainditu du

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Martxoan, 3,48 metroko saltoa egin zuenean elkarrizketatu genuen Malen Ruiz de Azua, pentsatuz Arrasatekoa aurtengo denboraldiko markarik onenera iritsita zegoela. Baina ez, kadete mailako atletak hobetzeko sekulako gaitasuna duela erakutsita 3,50 metroko saltoa egiteko gauza izan da, Anoetan: "Erabateko arrakasta izan da Arrasateko taldearendako, estatu mailan talde zerrajeroak lortzen duen nazional mailako lehenengo errekorra delako", adierazi du taldeko ordezkari Fernando Zufiriak: "Arrasaten pertika saltoan Jonathan Perezen aginduetara lanean dabiltzan atletak ze lan ona egingen dabiltzan erakusten du marka berri horrek".

Ruiz de Azuak Gipuzkoako txapelketan egin zuen errekorra eman dion saltoa, eta marka berriarekin lehenengo errekorra zuen Clara Amat atleta kataluniarra gainditu du; egun, gazte mailan lehiatzen dabil Amat.

ZILARREZKO DOMINA

Joan den asteburuko salto ederrak balio izan zion Arrasatekoari zilarrezko domina eskuratzeko, Naroa Agirre atleta olinpiarrek 4,10 metroko saltoa egin zuen-eta. Donostiarrak, baina, ondo igarriko du atzetik datozenak ze indar-

tsu dabiltzan. Ruiz de Azuarekin batera, Jonathan Perezek urrea irabazi zuen 4,40 metroko markarekin eta Lore Marrek 3,30 metroko saltoa egin zuen.

Hala, gizonezkoetan Istar Dapena promesak Euskadiko eskola arteko txapelketan lortutako lehenengo postuak biribildu zuen pertikalarien asteburua (2,95). Eta 4x100 errelebotan, Blanco, Diosdado, Uribarren eta Dabila laukotea izan zen azkarrena.



Malen Ruiz de Azua, Mojategin.

ARANTZAZU EZKIBEL



GOIENKARIA

Iban Rodriguez, Mondrara

Iban Rodriguezek (Arrasate, 1981) ordezkatu du Andoni Azkargorta Mondraren gidaritzan. Rodriguezek Aretxabaletan eta Realean jokatu zuen futbolekin, eta 2003/2004 denboraldian UDAko ohorezko infantilekin lanean hasi zen. Iaz, gazte mailako Gipuzkoako ohorezko entrenatzaile onena izendatu zuten, taldea liga nazionalera igotzearen.

> ARETO FUTBOLA

Lasagabasterrek eta Driblingek Zaldibarko txapela jantzeko jokatu dute bihar

Zaldibarko txapelketa iritsi da azken txanpara. Zapatuan jokatu dute final handia Lasagabasterrek eta Driblingek (17:30). Lehenago, hirugarren postuengatik lehiatuko dira Abokajarro eta McAwen Dauen (16:30).

Horrekin batera, antolatzaileek erabaki dute zeintzuk izan diren urteko jokalaririk onenak: Iñigo Jimenez izan da atezain onena eta jokalariei dagokienez, Mikel Vinagre, Mikel del Palacio, Inaxio Rodriguez, Iñigo Labaien eta Omar Garrido sarituko dituzte.



IKER

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR 

MUSIKA > KONTZERTUA

The Ruby Suns taldeak ukitu kaliforniarra emango dio Amaiari

Ryan McPhun konpositorea dago The Ruby Suns taldearen atzean; 60ko hamarkadako soinu psikodelikoa egiten dute, besteak beste

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE
Gaztemaniak! programaren barruan kontzertua eskainiko du The Ruby Suns talde kaliforniarrek Arrasateko Amaian antzokiko atartearen gaur iluntzean. Kontzertua 20:00etan hasiko da eta 7 euro kostako da sarrera.

ERA GUZTIAK SOINUAK
The Ruby Suns taldeak era guztietako soinuak uztartzen ditu. Besteak beste, 60ko hamarkadako soinu psikodelikoak, Poline-

siako folka, tropikalismoa eta Afrikako erritmo tribalak. Soinu nahasketa horren atzean Ryan McPhun konpositore eta ekoizlea dago.

Musikari kaliforniarrek *Fight Softy* disko berria aurkeztuko dute Arrasaten. Aurreko lanekin alderatuta *The ruby suns* eta *Sea lion*, disko berrian soinu askoz ere elektrikoagoen alde egin dute kaliforniarrek, bateria eta gitarren pop ukitu gehienak alde batera utzita. *Cin-*

co, *Two humans* eta *Cranberry* dira disko horretako abesti esanguratsuenak. The Ruby Suns eta Animal Collective konparatu dute askok, eraginak eta erritmo afrikarrak nabariak dira-eta.

Lau lagunek osatzen dute The Ruby Suns taldea: Ryan McPhun, Alistair Deverick, Graham Panther eta James Danseyk.

GAZTEMANIAK! PROGRAMA
Diputazioak antolatzen du Gaztemaniak! Donostiako, Arrasateko, Hondarribiko, Oñatiko eta Zarauzko udalekin batera. Aurtengo edizioa egiteko zalantzan egon dira, baina, azkenean, aurrekontu txikiagoarekin aurrera egin dute.



The Ruby Suns taldeko kideak.

GOIENA



A.E.

Aste bukaeran '80 egunean' filma

Iritsi da Arrasatera ere *80 egunean* filma. Maria Asun Pagoaga protagonista duen filma bihar, etzi eta astelehenean ikusi ahaliko da Amaia antzokian. Betiko ordutegian izango dira emanaldiak: bihar 19:30ean eta 22:00etan; domekan 19:30ean; eta astelehenean 20:30ean. Martitzenean aurkeztu zuten filma Arrasaten.

> ZINEMA

'Cómo entrenar a tu dragón' haurrendako animazio filma etzi

Chris Sanders eta Dean DeBlois zuzendarien *Cómo entrenar a tu dragón* animazio filma eskainiko dute domekan Amaia antzokian. 17:00etan izango da. 7 urtetik gorako haurrendako da filma.

Ordu eta erdi irauten du animazioa, abentura eta umorea uztartzen dituen filmak.

> ERAKUSKETA

Gaurtik aurrera Arrasate Margo Taldearen lanak ikusgai

Gaurtik ekainaren 17ra arte Arrasate Margo taldearen lanak erakusketa Harresi aretoan egongo da. Astelehenean egubakoitzera, 18:00etatik 20:00etara; eta zapatuan eta domekan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Zumetaren *Oi! Bihotz* erakusketa Kulturaten, hilaren 20ra arte.

UDAKO IKASTAROAK

INFORMATIKA

- Word • Excel • Mekanografia
- PowerPoint

ADMINISTRAZIOA

- Kontabilitatea, Contaplus
- Nominak, Nominaplus

INGENIARITZA

- Dinamika • Kalkulua
- Erresistentziak • Fisika
- Aljebra • Solids Works
- Termodinamika
- Mekanismoak • Leunketak
- Pascal programazioa

DISEINU GRAFIKOA

- Photoshop • Flash
- Dreamweaver

LAGUNTZA ESKOLAK

- DBH • Batxilergoa
- Enpresa Zientziak

AKADEMIA

BASTIDA

Araba Etorbidea, 3-1
Tel.: 943 79 35 33
Faxa: 943 79 06 28
www.bastida.es



MATRIKULA ZABALIK
formakuntzamariasun@bastida.es

SERRERIA ERRASTI S.L.

EGUR BILTEGIA

Taula aglomeratuak
D.M. melaminak
Mozte zerbitzua
Aurremarkoak eta aholzak
Egurrezko enbalajeak

Tel. 943 79 01 61 - 651 70 79 96
Araba ibilbidea, 7

ARETXABAETA

KIMETZ

taberna

Plater konbinatuak
Ogitarteko hotz eta beroak
Hamburgesak
Pintxoak
Razioak

943 10 97 30

Maalako Errebala 15. ARRASATE

ONDAREA > INDUSKETA

Madariaga ez da sekula egon Seminarioko elizan hilobiratuta

Elizako mausoleoaren harlosa jaso eta inoiz hilobi funtziorik ez duela izan frogatu dute

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Seminarioko elizako ikerketa arkeologiko-historikoaren bigarren faseko emaitzak eman zituzten eguaztenean ikerketa egin duten adituek zein Udal ardura dunek. Adituon arabera, emaitzak garrantzitsuak dira eta horien "aldarri" egin behar direla ere azpimarratu zuten.

Zenbait artxibotan ikertuta batu ahal izan dute, besteak beste, elizaren eraikuntzaren bilakera historikoa, eliza eraiki aurretik han izandako erabileren bilakera historikoa eta Andres de Madariagaren biografia.

Hain justu, Andres de Madariaga izan da ikerkuntzaren ezus-



Ikerketako adituak eta udal ordezkariak Madariagaren hilobiaren bueltan. M.B.

te handienetako bat, izan ere, Seminarioko elizan zegoen haren mausoleoa induskatu eta hutsik zegoela ikusi dute eta inoiz hilobi funtziorik ez duela izan frogatu dute.

Horrek "monumentuaren izaera sinboliko eta erakusgarria berresten du, sortu zen mundu barrokoarekin bat datorrena", adituen arabera, eta gehitu zuten: "Gipuzko-

an benetan bakarra den izaera sinbolikoz betetako artelana da". Bestalde, mausoleoan zeuden 1678ko eta 1866ko harlosak "artelan bakarrak Gipuzkoan", zaharberritzen dihardute.

Ikerketak ahalbidetu du Madariagaren biografiaren gaineko datu asko ezagutzea -1628an jaio zen Bergaran, 20 urterekin Ameriketara joan zen, 1673an Bergarako alkate izan zen, 1673an Lima-ko kontu-auzitegiko Kontadore Nagusi izendatu zuten, 1673-78 artean Seminarioko eliza bukatzen laguntzen du 20.000 pesorekin...-, baina haren azken urteetan sakontzeko Peruko San Marcos unibertsitateko historialari bat kontratatu dute, Peruko Artxi-ko nazionalen aztertzen jarrai dezan, izan ere Madariaga 1699an Perura joan zela da azken datua.

Ekainaren 19an eta 16an bisita gidatuak egingo dituzte, 11:00etan, hori guztia azaltzeko.

INGURUMENA

Erreka garbitzeko irteera deitu dute biharko

M.B. > BERGARA

Aste Berdearen baitan erreka garbitzeko irteera egongo da bihar, zapatua. 10:00etan egin dute hitzordua San Martin plazan eta Ibaiondo ingurua garbituko dute. Hori horrela, Udaleko Ingurumen zerbitzuetik aurreratu dute interesa dutenek izena eman behar dutela kultura etxean. Bestalde, azpimarratu dute arropa egokia eramateko.

Erreka garbitzeaz gain, erreka-egoera ekologikoa ere aztertuko dute eta horrek batera, Jorge Gonzalez biologoak bisoi europarrak Bergaran bizi duen egoeraren berri ere emango du.

Bestalde, gaur, egubakio-tza, *Baso sorgindua* delako antzezlanaren egingo du Patata tropikala taldeak 18:00etan, San Martin plazan.

POLITIKA > EZKER ABERTZALEA

'Zutik Euskal Herria' aurkeztu dute asteen

M.B. > BERGARA

Euskal Herriaren egoeraren eta euskal prozesu politikoaren azterketa egin du ezker abertzaleak eta *Zutik Euskal Herria* adierazpenean batu dituzte ondorioak. Bada, eguaztenean eman zuten ondorioon berri Santa Anan.

Berretsi zuten "aldaketa politikoa gauzatzeko eta prozesu demokratikoaren bidetik aurrera egiteko borondatea" dutela. Uste dute prozesu demokratikoa dela "ziklo aldaketaren palanka" eta Euskal Herria eta herritarrak direla "prozesu demokratikoaren oinarria eta bermea". Horrekin batera diote prozesua demokratikoa dela "bere helburuetara iristeko elkarrizketa, negoziazioa,

akordio politikoa eta, oro har, tresna parte-hartzaile eta demokratikoen bidez garatu" behar delako. Eta "Euskal Herria autodeterminazioaren eszenatokira eramateko prozesu politiko mailakatu, arautu eta adostua" izan behar duela.

Konpromisoaren ordua eta urratsak egiteko ordua ere bada- la ere uste dute eta marko demokratikoa lortzeko protagonista nagusiak herritarrak direla.

180 BERGARAR

Bergaran ere hainbat batzar egin dituzte eztabaida prozesuan barrena eta 180 lagunek hartu dute parte. Santa Anan azaldu zuten, "Bergarako ezker aber-



Ezker abertzaleko ordezkariak Santa Ana parkean. M.B.

tzaleak 30 urteotako prestutasun eta ardura berberaz jokatzeko jarrera zintzoa" du. Eta "Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoa konpontzeko beharrezko

diren herritar eta eragileekin batera elkarlanean jarduteko" prestutasuna ere azaldu zuten. Bestetik, azpimarratu zuten Bergarako ezker abertzaleak "ahal

duen guztia" egingo duela "herri-tarrok gure herria eraikitzeko beharrezko ditugun tresna parte-hartzaile guztiak guztion esku-ragarri izateko".

GOIERRI

Autogidarien Eskola



Gidabaimena euskaraz zein gazteleraz atera dezakezu
Informa zaitez

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

BEHEKO TABERNA

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

ZENBAT IRAKATSI DIDAZUN

Matrikulazio epea:
Maiatzaren 31tik ekainaren 11ra



Mariaren Lagundia
ikastola

Espaloia 1
Tel.: 943 76 25 40 / 41
ikastola@mlagundia.net



PROFESIONALAK GERTATZEN 1976-TIK

BERRIA Praktikak European egiteko aukera (Erasmus)

% 95-eko lanbideratzea

Plaza mugatuak

informazio gehiago
www.mlagundia.net

63€ hilean

E PLANA > IRIZAR JAUREGIAREN BIRGAITZE LANAK

Tabikeak kentzen hasi dira egurrezko egitura agerian uzteko

Irizar jauregiko birgaitze lanek lehen urratsak egin dituzte; aldamiatu egin dute eraikina eta barruan ere hasi dira lanean

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Aurrera doaz E Planaren barruan birgaituko den Irizar jauregiko lanak. Goitu Eraikuntzak SL enpresak dihardu lanok egiten, Zetabi Arkitektura Bulegoaren zuzendaritzapean.

Hain justu, Zetabitik azaldu dutenez, Irizar inguratzen duen lorategiko itxidura zati bat bota dute eta obrak iraungo duen denborarako metalezko itxitura berria egin dute, eraikitze prozesuan materialak, karga eta deskargakuneak, txabolak... edukitzeko.



Erabat aldamiatuta dago Irizar dagoeneko.

M.B.

Beste alde batetik, solairuetako tabikeria kentzen ere hasi dira, tabike artean ezkutatuta zegoen egurrezko egitura originala tratatu ahal izateko eta beharrezkoa den guneean indartze-

ko. Zetabikoen arabera, dagoeneko hirugarren solairuko tabikeria bota dute.

Lanok maiatzaren 12an hasi zituzten eta abenduaren 10erako bukatzea espero dute.

oharrak

IKASTAROA

> Barreterapia ikastaroa antolatzen du Bizikasik

Ciel Brooijmans de Wit arte-terapeuta, antzerki zuzendari, eta antzezleak emango du ikastaroa. Ekainaren 10ean, 11n, 17an eta 18an izango dira eskolak, 16:30etik 19:00era. Izenematea da hilaren 8a aurretik (943 76 93 94 Miren).

JOKOAK

> Xiba jokoetarako izenematea zabaldu dute

Udaleko Euskara Zerbitzuak UEMA egunean (ekainaren 12an Mallabian) egingo diren herri arteko Xiba jokoetarako taldea osatu nahi du. Taldeak zortzi lagun izan behar ditu: lau gizonezko eta lau emakumezko. Izenematea da ekai-

naren 7ra arte Euskara Zerbitzuan (943 77 91 66).

KIROLA

> Gaur bukatuko da izenematea udako kirol kanpaina

Izena emateko jo Agorrosinera (943 77 70 95). Ume zein nagusiendako eskaintza berezitu eskainiko dute.

AUZOAK > JAIAK

Otaba jaiak domekan eta astelehenean Elosun

M.B. > BERGARA

Domekan, Otaba eguna, 11:30ean hasiko dira jaiak etxafuegoak jaurtita, eta 12:00etan meza nagusia egingo da. 12:30ean pilota partiduak egingo dira eta 13:00etan triki poteoa. 14:30ean, berriz, bazkaria egingo da Ixaun jatetxean –izena emateko deitu 943 85 32 50 zenbakira– eta 17:30ean erromeria egingo da Lutxurdio eta Aitziber trikitilarietara. Afaria ere egingo da nahi duenarentzat.

ASTELEHENEAN, OTABA TXIKI

Astelehenean, Otaba Txiki eguna, 13:00etan auzoko hildakoen aldeko meza egingo da. 13:30ean hamarretakoa egingo dute tea 15:00etan auzo bazkaria. Bazkaldu eta gero, Laja eta Lutxurdio trikitilarietara dantzaldia egingo da.

18:00etan umeendako jolasak egingo dira; 20:30ean, berriz, auzo afaria; eta afaldu eta gero, dantzaldia egingo da ostera Laja eta Lutxurdiorekin.



GOIENKARIA

Inglaterra Miguel Altunarekin

Miguel Altunak sei beka sortu ditu, lehenengoz eredu eleanitzean ikasten diharduten Goi Mailako ikasleek ingeles maila hobe dezaten. Hala, ekaineko bigarren hamabostaldia Brighton hirian emango dute beka jaso duten ikasleek –argazkian, Iker Arevalillo, Ibai Zabalo, Hodei Aranguren, Ibon Urtelai eta Iker Jimenez– ingelesa ikasten.


TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

GURIA

Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

Mujika

gozotegia



Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak


Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

2010eko ekainaren 7tik 12ra
Arantzazu, Afrikarekiko elkargune



www.baketik.org 943-251005

2010

Ekainaren 8tik 11ra

18.00etatik a 20.00etara: Mbuyi Kabunda irakasleak zuzendutako ikastaroa: lankidetzarako sendetzea eta berradiskidetzera Laku Handietan.

Ekainaren 12a, larunbata

10.30ean. Mbuyi Kabundaren hitzaldia.

«Historia, egungo egoera eta bizikidetzaren berreraikitze eta berradiskidetzarako bidezko prozesu baterako lehentasunak Laku Handietan.

11.45ean. Gorka Gamarraren Umurage dokumentala.

12.45ean. Solasaldia: Mbuyi Kabunda, Florent Rugigana, Gorka Gamarra, Jonan Fernandez eta Fausto Yudego.

14.00etan. Herri-bazkaria.

Ikastaroa Gandiaga Topagunean izango da. Ikastaro guztiaren matrikula: 40 euro. Egun solteak: 12 euro. Larunbateko hitzaldirako izena ematea eskatzen dugu. Modu berean, bazkarirako izena eman behar da (prezioa: 18 euro).

Antolatzaileak:

baketik

tau

Laguntzaileak:

Goiena

Babesleak:

ERNO DEPARTAMENTUA
GOBIERNO VASCO

TXIRRINDULARITZA > GIPUZKOAKO ERLOJUPEKO TXAPELKETA

Penabad: "Lehen kilometroetan gogortuta nituen hankak, baina ondo joan nintzen gero"

Bidelan-Kirolgi taldeko ziklista da 23 urtez azpikoetan Gipuzkoako txapeldun berria

XABIER URTZELAI > BERGARA

Eguaztenez egin zuten Aizarnazabalen Gipuzkoako erlojupeko txapelketa, eta 23 urtez azpikoetan Bergarako Asier Penabad izan zen azkarrena (27:28). Bidelan-Kirolgi taldeko ziklista Nafarroako Itzulia korritzetik zetorren, eta asteburuko nekea igarriko zuen beldurrez hasi zuen proba: "Nafarroan azken etapa leher eginda amaitu nuen, baina orokorrean gustura amaitu nuen, etapa nagusian ihesaldian sartuta ibili nintzelako. Astelehenean eta martitzenean entrenatzen igarri nuen nekea, baita erlojupeko hasierako kilometroetan ere".

24 kilometroko erlojupekoan, baina, Penabadek gorputzaldi oso onean dagoela erakutsi zuen, bigarren sailkatuari minutu pasa atera zion-eta. Gainera, egin zuen denbora onari esker 23 urtez azpikoetan onena izatearekin batera, elite mailako bi ziklista baino ez ziren gauza izan Ber-

garakoaren marka hobetzeko: "Asier Maeztu ziklista oso ona da, eta harrিতa geratu nintzen sei segundoko aldea baino ez zidalako atera".



Asier Penabad.

GOIENKARIA

Gipuzkoako txapela jantzita, hurrengo erronka Euskadiko erlojupekoan du Penabadek, asteburuan Villatuertan (Nafarroa): "Podiumera igotzea izango da helburua, hori lortuz gero Espainiako txapelketan egongo naizelako".

LOKATZAKOAK AURREALDEAN

Gazte mailan Lokatza-Sumofic taldeko Mikel Aristi eta Jon Rivero izan ziren Gipuzkoako txapelketan. Aristi lasterketa irabazteko faboritoetako bat zen, eta zortzigarren egin zuen: "Aurrerago ibiliko zela uste genuen, autoan haren atzetik joan nintzelako eta erritmo egokian egin zuelako erlojupekoa. Baina aurretik beste batzuk sailkatu ziren. Dena dela, Aristik erlojupeko lasterketei eskua hartu diela esango nuke, gauza asko egin zituelako ondo", adierazi du haren entrenatzaile Iker Sanchezek.

Eguneko ezuste pozgarria Jon Riverok eman zuen, sailkapen orokorrean bederatzigarren sailkatu zelako, hamalau kilometroko erlojupekoan Aristiren denbora bera eginda (21:33).

> DANTZA

Antonio Tagliariniren eta Idoia Zabaletaren eskutik 'Royal Dance' dantzaldia bihar Zabalotegin

Bihar, zapatua, 22:30ean egingo dute *Royal Dance* izeneko dantza ikuskizuna, Zabalotegin. Taulagainean izango diren dantzari Antonio Tagliarinik eta Idoia Zabaletak lan horretan joan den mendeko sinbolo toxiko eta indartsuena izango dute abiapuntu: zeremonia ofizialeko banderak.

Hala, koreografia ikuskizunak, erretorika politikoak, kirol ekitaldiak... sinbolo horiek errepresentatzen dituztenak nahita trukatu dituzte, esanahiak bikoiztuz, distortsionatuz...



GOIENKARIA

Aitor Garitano, Elkarreko saritu

Elkar argialetxeak antolatutako haur eta gaztetxoentzako ipun eta ilustrazio lehiaketako sari bat ibarrera ekarri du Aitor Garitano Agirreolea bergarrak. Hain zuzen ere, ilustrazio mailan Euskal Herriko saria irabazi zuen Garitanok, C mailan. Erretratuan, irabazlea Xabier Mendigurenen eskutik saria jasotzen, sari banaketa ekitaldian.

Bergarako Realzaleen bultzada

Joan den asteburuan egin zuten sortu berri duten Bergarako Realzaleak taldeak lehenengo irteera. Anoetan Realak Vila-Realen kontra lortutako garaipen garrantzitsuaren testigu izan ziren. Hala, Martin Lasarte entrenatzaileak adierazi duen Realak 12 jokalarirekin jokatu zuela, zaleei eskerrak emanez; tartean ziren mahoneroak.



HILARIO AZKARGORTA

GORLAKO KANTINA

martitzenetik igandera 12:00etatik itxi arte
jaiegunetan 10:30etik
astelehenetan itxita

egunero
zabalik!

EGUNEKO MENUA

ogitartekoak

pintxoak

plater konbinatuak

karta

Harremanetarako telefonoa:
627 81 82 12



Sukalde erabat pertsonalizatuak egiten dituzte Almacenes Arrasaten.

ALMACENES ARRASATE

■ SUKALDE ALTZARIAK

Almacenes Arrasate, bezeroaren neurrira

XABIER URTZELAI

Almacenes Arrasate enpresak 18 urte beteko ditu aurten. Hasierako urteetan etxetresnen salmantan espezializatu ziren, baina azken urte hauetan sukaldeko altzariekin ere buru-belarri dabilta. Diseinutik hasi eta bezeroak dituen behar eta nahi guztiara moldatzen diren sukaldeak aurkituko dituzue Almacenes Arrasaten, Kataide industrialdean.

Almacenes Arrasate enpresa barruan Borja Mobellan ardurtzen da sukaldeko altzarien arloaz, eta hark azaldu digu zer-nolako eskaintza duten: "Bezeroen nahietara moldatzen gara erabat. Batetik, gure ezaugarrietako bat da oso prezio onak ditugula, kalitateari muzin egin barik. Sukaldeak egiten dituzten bi enpresarekin egiten dugu lan, eta haietako bakoitzak ezaugarri propioak ditu: batek oso kalita-

te oneko produktuak eskaintzen ditu, prezioari horrenbeste begira egon barik; eta besteak oso-oso kalitate txukunean oso prezio oneko sukaldeak egiten dizkigu: formikan, esaterako. Adibide bat, lakazko kalitatezko sukaldeak ditugu oso prezio onean".

PERTSONALIZAZIOAN OINARRITUTA

Prezioena ezaugarrietako bat izanda, Mobellane sukaldeak aukeratzeko orduan bezeroak

dituen aukeren gainean ere egin digu berba: "Gaur egun geroago eta gehiago nahi dugu erosten dugun hori pertsonalizatua izatea, gure gustu eta beharretara moldatuta egotea; hau da, etxe bloke batean denok ez dezagula sukalde berdina izan. Eta horretan ahalegintzen gara, jendearen nahien arabera proiektu pertsonalizatuak egiten".

Pertsonalizazioa, baina, ez da diseinura murrizten: "Prezioa

"Gure ezaugarrietako bat da prezio oso onak ditugula, kalitatea kontutan hartuta"

"Jendeak badaki zer gustatzen zaion, eta guk orientazio lana egiten dugu"

kontuan izanda, sukalde bat aukeratzeko orduan bezeroak oso aukera zabala du: diseinua, materialak, koloreak... Hasteko, koloreetan bakarrik 120-140 kolore ezberdinetako sukaldeak aukera ditzakegu. Eta horren barruan, sukaldeko detaile bakoitza ere aukerakoa izan daiteke.

GAUR EGUN MODAN DAGOENA

Aukera horren zabala izanda, aukeraketa egiterakoan moda kontuak ere izaten dira tartean. Eta hori ere galdetu diogu Mobellani: "Gaur egun dena dago modan, eta hori gozamen da. Guztiok dakigu krisiaren kolorea zuria dela, zuria eta beltza, baina bi kolore horiek orain dela 22 urte ere modan zeuden. Baina kolorezko sukaldeak ere hor daude, orain dela 17 urte oso modan egon zirenak. Gaur egun kolore gorriko eta distira handiko sukalde bat duenak sukalde ederra izango du. Ni, esaterako, nahasketak egitearen aldekoa naiz. Hau da, egurrezko sukalde bat nahi izanez gero, ukitu moderno batzuekin eder asko gera daiteke: azidozko beira batzuekin, altzairu herdoilgaitzezko heldulekuekin... Bezeroak gustura hartzen ditu halako proposamenak".

Mobellane azpimarratu du, baina, bezeroak duela azken hitza: "Jendeak badaki zer duen gustuko; guk orientazio lana egiten dugu, baina eskaintza zabal baten aurrean".



ALMACENES ARRASATE



Etorri gure sukaldeak ikustera!

Eskatu aurrekontua konpromiso barik!



■ MOTORRA: TOYOTA

CO2 emisio txikien duen autoa merkaturatu du Toyotak

NEREA MENOR

Duela sei urte etorri zen gure-ra Euskoauto, eta harekin batera Toyota etxea. Debagoienean interesa ei zuten eta Olako tailerretan eman ziren eza-gutzera. Orduetik hona lortutakoarekin pozik daudela adierazi dute. Gipuzkoa osoko banaketaz arduratzen dira eta gasolinazko motorra motor elektrikoarekin uztartzen duen autoa merkaturatu dute.

"Toyotak ia karbono dioxidorik isurtzen ez duen autoa dauka, Auris hibrido berria", adierazi digu Mikel Moreiro Euskoauto-ko gerenteak. "Karbono dioxido emisioek ez dute gainditzen 135g/km".

Toyota autoak munduan salduenetarikoak direla argi laga nahi du Moreirok eta Auris hibridoa salduena dela Japonian. Iza-tez, lurralde hartan sortu zen etxe hau eta gaur egun merkatuaren %40ren jabe da Toyota marka.

ERREGAIA AURREZTU

"Aurisa erregai asko aurrezten duen autoa da. Hiri barruan hiruroko kontsumoa dauka eta ohiko errepideetan bost litrokoa. Oso txikia", dio Mikel Moreirok. Gasolinazko motorra eta motor elektrikoarekin uztartzen ditu auto horrek. "Zati elektrikoak beste zatia erabiliz birkargatzen da, gasolina motorraren indarrarekin, hain zuzen; eta motor bate-tik bestera automatikoki pasatzen da. Autoak berak badaki



Bergaran du Euskoautok Toyota salmenta puntu bakarra.

EUSKOAUTO

Motor elektrikoak eta gasolinazkoak uztartzen ditu Auris autoak, eta CO2 emisioa txikitu

noiz erabili behar duen bata eta noiz bestea".

Stop&Start sistema ere badu Aurisak: geldialdi eta abialdi (arrankea) automatikoa. Sistema

Erregai gutxiago kontsumitzen da, motor hibridoak elektrizitatea ere erabiltzen duelako

horrekin, ibilgailua aparkatuta dagoenean motorra automatikoki emendatzen da.

"Markaren beste berezitasu-netako bat inguruarekiko kon-

Lur orotako ibilgailuak, turismo handiak eta txikiagoak ere baditu Toyotak

promisioa da", dio Moreirok. "Azpimarratu beharra dago urte-an behin baso-berritze eguna egi-ten dugula; Toyotaren Baso-berritze Eguna delakoa. Estatu

osoan batera egiten den ekintza da; iaz, Zestoako lursail batean egin genuen, eta aurten Bergara aldean leku bila gabiltza bertan egiteko".

GAMA ASKOTARIKO AUTOAK

"Gure izarra auto hibridoa den arren -Aurisa-, guztiendako autoak ditugu: hirian ibiltzeko turismo txikiak; familientzako autoak; baserrian bizi direnentzako lur orotako ibilgailuak... Behar guztiak betetzeko gai gara", adierazi digu gerenteak.

Lasaitasuna da, orain Toyota finantzatzuz gero bost urterako bermea eskuratuko duzula jakitea



3 URTERAKO arrisku orotako aseguru, langabezia aseguru, eta mantentze zerbitzua + **5 URTERAKO BERMEA**



Toyota Auris 1.4 Diesela

150€ hilean*

Sarrera-kuota: 7.515,50€, 150 euroko 36 kuota eta azkeneko kuota 6.060,87 eurokoa. UTB: % 8,12

2000E planari eusten diogu**

AZKEN UNITATEAK 2000E PLANA



EuskoAuto www.euskoauto.toyota.es

Kontsumoa, batez beste (l/km): 4,7tik 6,6ra. CO2 (g/km) igortzea: 124tik 153ra.

BERGARA Olabarrena, z/g
Tel.: 943-76 23 85

ELGOIBAR Olaso industrialdea.
Olaso kalea, 23 - Tel.: 943-74 74 17

PASAI ANTXXO San Markoseko errepidea, 32
Tel.: 902-34 52 45

OLABERRIA Karobi industrialdea
Tel.: 943-80 59 26



Toyota Auris 1.4 D-4D Active 3 ate MY 2010. Publikoarentzako salmenta prezio gomendagarria 17.350 euro. BEZA, garraloa, matrikulazio zerga, promozioa eta kontzesionarioaren ekarpenak barne. 37 hilabetera finantzatua (150 euroko 36 kuota eta azkeneko kuota 6.060,87 eurokoa). Sarrera-kuota: 7.515,50 €. Irekizte komisio gabe: 270,45 € (%2,75). TIN: %6,60. UTB: %8,12. Atzeratutako prezio totala: 19.246,82 euro. Penintsulan, Balearretan, Ceutan eta Melillan 2010eko ekainaren 30era arte stockean dauden autoentzat izango da balagarria. Toyota Kreditbank GmbH sukurtsalak eskaintza finantzarioa egiten du Espainian, REBE 10/20022 zenb. Ikusten den modelo: Toyota Auris TS. Toyotaren lasaitasun programa: eskaintza balagarria Toyota Optima Drive guztiendako, kenduta Toyota iQ eta Toyota Aygo. Promozioa Toyota Eleccion-ekin batera aplikagarria da, indarrean dagoen bitartean. Beste promozio batzuekin batera ezina da. Aiol Motor and General Insurance Company of Europe, 25 urte baino gehiago eta gidabaimena 2 urte baino gehiago duten pertsonendako arrisku orotariko aseguru 300 euroko frankiziarekin eskaintzen dute Espainia mailan, kodea (E) 0176 Toyota Insurance Management bitartekaritzarekin. DGSKo Aseguruen Bitarteko Erregistroan sartuta daogon agentzia eskusiboa, kodea E0176W0068868A. London General Insurance aseguru-etxak langabezia aseguru eskaintzen du 3 urterako, 45.000 km edo 3 urterako zerbitzua eta mantentze-lanak lehenago ematen ditu. "Toyota Extracare 3+2" bermearen luzapena Toyota Motor Europe eskaintza hila amaitu arte. Kontsultatu baldintza zehatz guztiak www.toyota.es webgunean edo Toyotako bezeroarentzako arreta-zerbitzuekin harremanetan jarri 902 342 902 telefonoan. 2010eko ekainaren 30era arte balagarria Penintsulan, Balearretan, Ceutan eta Melillan. ** Toyotak bere gain hartzen du 2000€ planaren 500 euroko ekarpen estatala (autonomia erkidegoen ekarpenak kanpo daude), abendu 30eko RD 2031/2009an ezartzen diren baldintzak betetzen badira, fondo estatalen amaieratik hila amaitu arte

AUZOAK > LANAK

Irailean inauguratuko dute Arantzazuko auzo-etxea

Solairu bakarrekoa da eta jangela, sukaldea, komuna eta gelak izango ditu; Arantzazun bizi direnak eta haien oinordekoak dira bazkideak

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Arantzazun egiten diharduten auzo-etxea irailean inauguratuko dute. Hori da, behintzat, auzotarren nahia. "Lanak erritmo onean doaz. Kanpoko enpresa bat dabil eraikina egiten. Kanpo aldeko urbanizazioa auzotarron artean egingo dugu", esan digu auzo-alkate Jabier Arregik.

Arantzazura heldu baino lehen, Kortakoagain aldean ikusten da eraikin berria, errepedetik. Solairu bakarrekoa eraikina da; jangela, sukaldea, komuna eta gelak izango ditu, eta jangelan beiratea jarriko dute. Kanpotik zuri kolorekoa da. Gainera, ingurumenarekiko eragina ahalik eta txikiena izan dadin, teilatua, kanpotik, belarra jarriko dute.

Eraikina Ugarte enpresak egiten dihardu, baina inguruko urbanizazio lana auzotarrek egingo dute. "Egubakoitz, zapatu eta domeketan elkartzen gara auzoan beharrezkoak diren lanak egiteko", esan digu Arregik.

55 BAZKIDE

Arantzazuko auzo-alkatea pozik dago eraikin berriarekin. "Behar-beharrezkoa genuen auzo-etxea. 48 urtean egon gara elkartzeko eta auzoko gaiak aztertzeko lokal barik. Auzoa gainbehera zeterren. Baina auzo-etxearekin giza harremanak sortu eta auzoko giroa indartuko dugu", esan digu Jabier Arregik.



Kortakoagain inguruan dihardute auzo-etxea egiten; errepedetik ikusten da eraikina.

MIREIA BIKUÑA

55 bazkide ditu auzo-etxeak, guztiak Arantzazun bizi diren baserritarrak eta haien oinordekoak. Arregik esan digu auzo-bazkariak eta afariak eta bilerak egiteko erabiliko dutela.

AUZO-ESKOLATIK AUZO-ETXERA

1898a ezkerro, Arantzazuko auzo-eskola egun aparkalekua dagoen tokian zegoen. Bi solairu zituen: behean eskola, sukaldea eta komuna; eta goian bi logela,

sukaldea eta komuna. Bigarren solairu hark balio zuen baserriren batek su hartzen zuenean eraberritu bitartean hara bizi izatera joateko. 1961ean, autoen aparkalekua egiteko enbarazu zela-eta, bota egin zuten. Orduetik hona dihardute auzotarrek bilteko lokala eskatzen. Gandiaga Topagunea egin zutenean ere lokala eskatu zuten han.

Arantzazuko aparkalekua egiteko dokumentu bat sinatu

zuten Udalak, frantziskotarrek eta auzotar batzuek. Baina desagertu egin zen. Urte batzuk pasa eta gero, fotokopia agertu zen, baina ordurako, auzo-etxe berria egiteko lehen pausoak ematen hasiak ziren. Frantziskotarren laguntza azpimarratu digu Arregik: "Telesforo Zuriarrainekin egin genuen berba, eta hark esan zigun lursaila topatzeko, eurek ordainduko zutela, eta ondoren lagapena egingo zigutela. Horregatik guztiagatik, eskerrak eman gura dizkiegu".

DIRULAGUNTZAK

Auzo-etxearen aurrekontua ia 361.000 euro da. %60 bazkideek ordainduko dute eta gainerako %40a laguntzen bidez estaliko dute. Udalak laguntza eman die, eta Erein elkartean eskaria egin dute. Lanen lehenengo faseko 111.000 euroko faktura bidali dute Ereineri. Bada, laguntza onartzen badute, %40 itzuliko diete auzotarrei.

ESANAK

"Auzoa gainbehera zeterren, eta lokal berriarekin giza harremanak sortu eta auzoko giroa indartuko dugu"

Jabier Arregi > Arantzazuko auzo-alkatea

"Arantzazuko frantziskotarrek ordaindu dute lursaila eta lagapena egin digute guk erabil dezagun"

> TURISMOA

Arrikrutzen udako ordutegia izango dute irailera arte

Arrikrutz kobetan udako ordutegia dute irailera arte. 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara egongo da zabalik -neguan 18:00ak arte zabalitzen dute-. Eguneko azken bisita koba itxi baino ordu erdi lehenago egingo dute, martitzenetik domekara. Bisita gidatuetan parte hartzeko alde zuzenarekin erreserba egitea ezinbestekoa da, 943 08 20 00 telefono zenbakira deituta.

> ERAKUSKETA

Margo taldekoen lanak ikusgai herriko bost dendatan

Oñatiko margo taldeko kideek euren lanak ipini dituzte ikusgai; hain zuzen ere, Marku arropa denda, Arkauz Optikan, Itziar Optikan, Txintxurreta Elektrizitatean eta NI arropa-denda ikus ahaliko dira.

Ikasturtean zehar egindako lanak erakutsiko dituzte, dendak zabalik dauden ordutegian. Gai ugariaren gainean egindako lanak dira, eta askotariko teknikak erabili dituzte.

> ZERBITZUAK

Zubikoa kiroldegiko igerilekuaren kanpoko zelaia zabalik dago

Eguraldi onarekin batera zabaldu dute kiroldegiko igerilekuaren alboan dagoen zelaia. Egunero zabalduko dute, igerilekuak duen ordutegi berarekin. Itxita egongo da domeka arratsaldeetan bakarrik.

Bestalde, hilaren 20tik aurrera jarriko dute indarrean udako ordutegia kiroldegian. Horren arabera, domeka arratsaldeetan ere zabalduko dituzte Zubikoa kiroldegiko instalazioak.

> DEIALDIA

Durbachen egonaldia egiteko aukera senidetze batzordearekin

Senidetze Batzordeak Durbachen (Alemania) astebeteko egonaldia -abuztuaren 14tik 21era- egiteko deialdia egin du. Durbach Chateaubernardekin senidetuta dago. Egonaldia Ortenberg gazteluko aterpetxean egingo dute. Deialdia 17 urte arteko seme-alabak dituzten familiendako eta 14-17 urte arteko gazteendako egin dute. Informazio gehiago gura dutenek 695 75 71 27 telefonora dei dezakete.

IBILALDIA

Mendi irteerak ekainean eta uztailean

Kantabria eta Burgosera eta Pirinioetara egingo dituzte

M.B. > OÑATI

Aloña Mendi elkarteko mendi sailak bi irteera antolatu ditu ekainerako eta uztaile-rako: hain zuzen ere, Kantabria eta Burgos inguruko mendietara joango dira ekainaren 19an eta 20an eta Pirinioetara uztailearen 17tik 18ra.

Ekaineko irteerarako izenematea hilaren 9an zabalduko dute, 16ra arte. Interesatuak Aloña tabernan eman behar dute izena. Bazkideek 50 euro ordaindu behar dituzte eta bazkide ez direnek, 60.

UZTAILEAN, PIRINIOAK

Ekainaren 19-20ko aste bukieran sei orduko bi irteera egingo dituzte: lehen egunean Salcedillo-El Bernacho-Castro Valnera-Pico de Miel-Puerto de la Lunada ibilaldia egingo dute; bigarren egunean, aldiz, Tunel de Engaña-Cotero-Estacas de Trueba.

Bestalde, uztailean, Pont d'Espagne-Wallon-Panticosa ibilbidea egingo dute bi zatitan. Informazio gehiago: www.alona-mendi.com.

oharrak

DEIALDIA

> 'Itzarri' erakusketa domekara arte

Esteban Kerexetaren eskulturak ikusgai daude kultura etxean, domekara arte, 18.00etatik 20:00etara. Burdinaz, egurrez eta harriz egindako 40 lan jarri ditu oñatiarrek.

DEIALDIA

> Futboleko ibilbideko neskek bazkaria egingo dute

Aloña Mendin ibilbideko neskek bazkaria egingo dute ekainaren 19an. Interesatuak 30 euro sartu behar dituzte 21010057530012628921 zenbakian. Aurretik, futbol partiduak jokatu dute Azkoitiko Anaitasunaren kontra.

ERAKUSKETA

> Josu Garairen erakusketa martitzenetik aurrera

Argazkilaria oñatiarrek Munduan zehar delako bilduma jarriko du kultura etxean. Hilaren 8an zabalduko dute erakusketa, egunero, 18:00etatik 20:00etara.

JAIK > CORPUSAK

Tradizioa eta festa giroa nagusi Corpus jaietan gaurtik

Oñatz dantza taldekoek kriskitin doinuak kalerik kale ibiliko dituzte; domekan, San Migel izango da protagonista

irtengo dira parrokiatik. Oñatze-ko dantzariak dantza egingo dute Santisimoaren aurrean.

BISITA GIDATUAK
Bestalde, Turismo Bulegoak bisita gidatua egingo du domekan

10:00etan. Corpus egunaren gaineko azalpenak eman eta San Migel eta Apostoluak janzkera prozesua erakutsiko dute.

Bisita gidatuan parte hartu gura dutenek 943 78 34 53 telefonora deitu beharko dute.



San Migel izango da etziko prozesioko pertsonaietako bat.

GOIENKARIA

Corpus jaietako egitaraua

Gaur

Goizean zehar Oñatz dantza taldekoak auzoetan ibiliko dira.

14:30etik 17:00etara Oñatz dantza taldekoek emanaldia egingo dute ikastetxeetan.

18:00etan Txorimaloak eta erraldoiak, txistularien laguntzarekin.

18:45ean Musika Eskolako ikasleek musika maratoia egingo dute plazan.

22:30ean Yllana antzerki taldearen emanaldia Santa Ana antzokian.

Bihar

09:00etan Oñatz dantza taldearen emanaldia plazan. Ondoren, kalerik kale ibiliko dira txistularien laguntzarekin.

10:30ean Probintzia mailako plater tiroketa txapelketa Txopekuan.

10:30etatik aurrera Euskal Selekzioaren eguneko ongietorria.

11:30ean Gaztetxoendako lasterketak plazan.

12:30ean Herri jokoak gaztetxoendako plazan.

14:00etan Herri bazkaria.

16:30ean Porrotx pailazoaren saioa.

16:30ean Debarro pilota txapelketako finalak Zubikoan.

18:45ean Corpus bezperako lasterketa. Euskal Herriko txapelketa.

19:30ean Udala Musika Bandaren kalejira.

Ondoren Trikiotxo taldearekin erromeria plazan.

23:00etatik 01:00etara Trikiotxo taldearekin erromeria plazan.

Domekan

09:00etan Txistulari Bandaren goizeresia.

10:00etan Udala Musika Bandaren goizeresia.

10:00etan Prozesioko irudiak parrokiara heltzen hasiko dira.

10:45ean San Migelen irudia eta udal ordezkariak parrokiara helduko dira.

11:00eta Meza nagusia parrokiaren Ondoren, prozesioa hasiko dute.

13:30ean Udala Musika Bandaren kontzertua.

18:15ean Oñatz Dantza taldekoen emanaldia.

19:00etan Udala Musika Bandaren saioa.

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Ez dira herriko jai nagusiak, baina oñatiarrek halaxe bizi dituzte. Gaurtik domekara arte Corpus jaiak ospatuko dituzte. Bada, tradizioa eta festa giroa izango da aste bukaeran.

KRISKITIN DOINUAK

Corpus jaietan bi dira protagonista nagusiak: alde batetik, Oñatz dantza taldekoak. Gaur, bihar eta etzi kriskitin doinuekin girotuko dituzte herriko auzoak, kaleak eta ikastetxeak. Beste alde batetik, San Migel, herriko zaindaria, izango da protagonista domekako prozesioan. Fernando Diazek berriro jantziko du 25 kiloko armadura. Diazek Jose Antonio Agirianoren lekukoa hartuko du.

Kriskitinak, prozesioko irudiak, San Migel, apostoluak, aingerutxoak eta lehen jaunartzea hartu dutenak; guztiak 12:00etan

Euskal sukaldaritzaren
errezeta ezagunenak

José Castilloren eskutik



EUSKARAZKO
LEHEN
SUKALDARITZA
BILDUMAREN
3. alea

berriarekin
eskaintza berezia



Aurreko bi aleak
ez badituzu eskuratu,
eskatu orain.
Hirugarren
alearekin batera
jasoko dituzu.



EGIN ESKAERA **ekainaren 11 baino lehen**
www.berria.info · harpidetza@berria.info
943-30 43 45

Laguntzailea:



www.fagor.com



www.TTARTALO.com

Aukera ezazu,
BIZI euskaraz
berria

UDALA > HITZARMENA

Baldintzak Bidegiren hitzarmenari

Alderdiek eskatu dute Udalak egin ditzan lanak, eta egin eta 30 egunera ordain diezaiola Bidegik

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Hitzarmena zeukaten adostuta Bidegik eta Udal Gobernuak autobidearen eraikuntzak eragindako kalteak konpontzeko. Astelehenean egindako osoko bilkuran sinatzea onartu zuen udalbatzak, baina baldintza bi gaineratuta.

Ordubeteko eztabaida izan zuten udalbatzako kideek. Izan ere, gainerako alderdiak ez zetozen guztiz bat Udal Gobernuak idatzitako hitzarmenarekin. Izurieta eta Galartza inguruko

berreskuratze lanak Udalak egingo ditu, hitzarmenean jasotakoaren arabera, eta gero, Bidegik ordaindu egingo dizkio. 843.000 euroko lanak izango direla uste dute udal teknikariek, baina gainerako alderdiek esan zuten edozein ezustekorengatik kopuru horrek gora eginez gero Udalak ez duela zertan bere gain hartu, eta hori hitzarmenean jasotzeko.

Bestalde, alderdi horiek eskatu zuten egindako lanak 30 egunera ordain ditzala Bidegik.



Galartzako Egilleor baserri inguruak txukuntzeko zain.

M.A.

Alkateak jakinarazi zien Bidegiko zuzendari nagusi Borja Jauregik hala hitzeman ziola, baina udalbatzako gainerako kideek eskatu zioten idatziz jaso eta hitzarmenean sartzeko. Bestalde, autobidearen lanek kaltetutakoei osatutako komisioko ordezkariak eskatu zuten lehenbailehen

sinatu eta hasteko lanok, 1995a ezker daudelako zain.

Hala, bi baldintza sartuta onartu zuten hitzarmena –Alderdi Sozialista abstenitu egin zen–: lanak bukatutzat emango direla dirua bukatzen baldin bada eta lanok 30 egunera ordainduko dizkiola Udalari Bidegik.

POLITIKA > AURKEZPENEA

Zaraia beteta 'Zutik Euskal Herria' aurkezpenean

Ezker abertzalearen eztabaida prozesuak jakin-mina sortu du; herritar asko egon ziren

M.A. > ARETXABALETA

Ezker abertzaleko kideek hainbat hilabetetan egindako eztabaida prozesuaren ondorioak azaldu zituzten martitzenean Arkupe kultura etxeko Zaraia aretoan. Bete egin zen Zaraia, horiek entzun eta kezak agertzeko, eta elkartutakoen artean egon ziren Aralar eta Ezker Batua alderdie-tako hainbat kide.

Ezker abertzaleko kideek diote aldaketarako baldintza indartsuak daudela gaur; besteak beste: erabakitze eskubidearen aldeko jarrera; independentisten



Ezker abertzalearen proposamenen aurkezpenean Arkupen martitzenean.

M.A.

gorakada; eta nazioartean estatu berriak sortzeko aukerak. Independentistak elkartzeko nahia agerikoa dela diote eta euskal gatazka nazioarteko agendan sartzeko aukera ere bai. Baldintza

horiek aprobetxatu eta ondo jokatzea dela orain gakoa azaldu zuten.

ATZERA BUELTA BAKO PROZESUA

Aldaketa horretarako indar metaketa eta gizartearen implika-

zioa behar direla esan zuten, "gehiengoaren babes lortzeko". Hori horrela, urratsak egiteko gertu azaldu ziren, inoren zain egon barik, eta hiru geltoki planteatu zituzten: gutxieneko oinarri demokratikoak lortzea; akordio demokratikoak erdieste horretarako gertu dauden eragileekin; eta marko demokratikora iristea akordioaren gauzapean juridiko-politikoa egiteko.

Prozesu horretan sartzek ez duela atzera bueltarik izango onartu zuten eta aldaketa horrek hiru ondorio izango zituela iragarri: estrategia berri bat artikulatzea gizartearen gehiengoa lortzeko; estatuarekin borroka politikoa biderkatzea; eta erasoei aurre egin beharra. Hain zuzen, horretarako gizarte osoaren inplikazioa eta indar metaketa ezinbestekotzat jo zituzten.

PREBENTZIOA

Erretzeari uzteko ikastaroa hilaren 11n

M.A. > ARETXABALETA

Udal Prebentzio Zerbitzuak erretzeari uzteko ikastaroa antolatu du. *Es fácil si sabes cómo* izeneko metodoa erabiltzaile arratsalde bakarrekoa saioa izango da eta ekainaren 11n, egubakoitza, egingo dute (15:00-21:00). Izena, baina, martitzenerako (hilaren 8a) eman behar dute interesatuek udaletxeko Prebentzio Zerbitzuan. Ikastaroaren kostua 195 euro da –ohiko kostua, 280 euro–, bi hilabete eta erdian tabakoaren truke gatzatzen dena, hain zuzen.

METODO EZAGUNA GUREAN

Es fácil si sabes cómo metodoa oso ezaguna da gurean, bate-tik, enpresetan erabili dute-lako –Copreci, Ederlan...– eta bestetik, Udalak berak hainbat ikastaro antolatu dituelako. 15 urteko esperientzia dute eta hona hemen haren ezaugarri batzuk: saio bakarreko ikastaroa; utzi ostean errefortzu laguntza eta jarraipena eskaintzen du; metodorik eraginkorra; botika eta nikotina ordezkari barik; sakrifizio barik; eta dirua itzultzeko bermearekin.

> BALORAZIOA

Haurren Eguneko laguntzaileei eskerrak eman gura dizkiete

Lehenengoz antolatu du aurturten Leizarra musika eskolako Haur Dantzarien Eguna eta arduradunak oso pozik daude egindako lanak emandako fruituarekin.

Lan horretan laguntzaile asko izan zituztela badakite eta eskerrak eman gura dizkiete guztiei, batez ere gastronomian elkarrekin eta gurasoiei. Azken horiek bikain erantzun ziotela hartutako konpromisoari jakinarazi dute.



**ANDRA
MARI**

Aholkularitza

**Fiskala
Kontablea**

Juridiko/laborala

2009ko ondare eta errenta aitorpenerako epea zabalik

KONTZERTUA > ARETXABALETA ABESBATZA

Abesbatzaren inguruko lagunak omentzeko izango da kontzertua

Aurten betetzen duen 30. urteurrena ospatzeko ekitaldietako bat da

Grabatu egingo dute domekako kontzertua ikus-entzunezko baten jasotzeko

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Kontzertua eskainiko du Aretxabaleta Abesbatzak domekan, hilak 6, parrokiaren (19:00). Aurten ospatzen dabiren 30. urteurrenako ekitaldien artean dago kontzertu hori, eta bertan, omenalditxo egin gura diete hildako abesbatzako kideei, bazkide eta laguntzaileei, bigarren abeslari izan direnei, abeslarien senideei eta, orokorrean, aretxabaletarrei. Kantu herrikoiak izango dira nagusi eta kontzertua grabatu egingo dute 30 urteotako ibilbidea jasotzen duen ikus-entzunezko egiteko gero.



Aretxabaleta Abesbatzako kideak Azkoitian egindako entsegu baten aurtengo maiatzean.

ARTEMAN

NEMESIO OTAÑOAREN OMENEZ

Arteman komunikazio enpresa dabil egiten ikus-entzunezko hori eta udazken ingururako gertu izango dute. Argazkiak, ekitaldiak, abesbatzako kideen

eta kanpokoen testigantzak, gaur egungo irudiak, abestiak eta beste hainbat kontu jasoko ditu ikus-entzunezkoak.

Bestalde, Nemesio Otaño konposatzailearen omenezko

diskoa aterako du abesbatzak aurten Loiolako jesuitekin elkarlanean. Entseguetan dabilza orain eta laster hasiko dituzte grabaketak; horietako bat Aoartzako parrokiaren egingo dute.

ERRETIRATUAK > BATZARRA

Eztabaida-mahaiak osatu gura dituzte

Alkatearekin batzarra egingo dute hilaren 16an herriaren gaineko hausnarketa abian jartzeko

M.A. > ARETXABALETA

Basotxo erretiratuen elkarteak kideek beste egitasmo bat jarriko dute abian, eztabaida ardatz hartuta. Eztabaida-mahaiak osatu dituzte Udalak herriko nagusien gainean duen iritzia jakiteko eta, era berean, nagusiek Udalaren gainean dutena.

Herriaren gaineko gogobetetasun inkesta egin du Udalak oraintsu, baina nagusien iritzirik ez dutela jaso uste dute Basotxoko zuzendaritzako kideek: "Nagusiak gara herriko aldaketen gainean gehien dakigunak; denbora libre luzeen dugunak; zerbitzuen behar handien dugu-

nak; eta ezagutza eta esperientzia dugunak herriaren zerbitzura jartzeko. Eta, gainera, kopuru esanguratsua gara".

BATZARRA ALKATEAREKIN

Egitasmoaren helburuen artean daude eztabaidak bideratzen ikastea, nagusien artean iritzia eta ezagutzak trukatzeko jakitea eta Udalarekin elkarlana abian jartzea.

Bada, eztabaida egitasmo hori hasteko batzarra egingo dute Inaxio Garro alkatearekin hilaren 16an, eguaztena. Hortik abiatuko dira gero eztabaida-mahaiak: "Ez dugu iritzirik adostu gura, ezta kritikak jaurti ere. Nagusien iritzia jasoko ditugu eta gero Udalari bideratuko dikion", diote antolatzaileek.

oharrak

IKUSKIZUNA

> **Dejabu taldearen 'Azken portua' domekan, umeendako**

Dejabu taldearen antzez-lana dute 4 eta 12 urte arteko umeek domekan Arkupen (17:00). Sarrera, 3 euro.

BERBALDIA

> **'Contaminación lumínica' Aranzadi elkartearen eskutik**

Oscar Ortuño adituak *Contaminación lumínica* berbaldia egingo du martitzenean, hilak 8, Arkupen (19:00).

MUSIKA

> **Musika Eskolak emanaldia**

Trikiti eta pandero emanaldia eguaztenean (18:30).

EUSKARA

Batzar orokorra du Loramendik eguenean

Aurtengo diru kontuak eta plangintza aurkeztuko dituzte bazkideen aurrean

M.A. > ARETXABALETA

Ohiko batzar orokorra egingo du Loramendi elkarteak eguenean, hilak 10, udaletxe zaharrean (19:00). 450 bat bazkide ditu elkarteak eta guztiek jaso dute gonbidapena etxean.

Jarduerak eta diru kontuak izango dituzte berba batzarraren: batetik, iazkoen berrikuspena egingo dute; eta bestetik, aurtengoak aurkeztu. Bazkideen galderendako tartea ere utziko dute bukaeran.

IBILBIDEAREN LIBURUXKA

Aurtengo plangintza barruan *Toponimia proiektua* dabil garatzen Loramendi azken hilabeteotan eta herriko ibilbide batzuk gertatzen dabilza. Lehenengo ibilbidea herri barruko da eta horren liburuxka banatu diete bazkideei egunotan. Ibilbide hori maiatzean aurkeztu zuten eta gidarien laguntzarekin egin ere bai. Askok, baina, ezin izan zuten egin orduan eta errepikatzea erabaki dute Loramendiko kideek. Ekainaren 12an izango da (10:00) plazako 82. kilometrotik irtenda.

> IRTEERA

Mendi irteera egingo du Murruxok Nafarroa aldera hilaren 13an

Mendi ibilaldia egingo du Murruxok Mendizale Elkarteak hilaren 13an Nafarroa inguruan: Urkiaga, Saioa eta Belate. Autobusa 07:00etan irtengo da Azbe pareko autobus geltokitik eta egun osorako joango dira.

Izena emateko martitzenetan joan behar da Murruxoren lokalerara (19:00-20:00) eta azken eguna hilaren 8a da. Prezioa, 15 euro (autobusa).

> MERKATARITZA

Aretxarteren zozketan, maiatzeko zenbaki saritua 20.997 da

Maiatzeko zozketa egin du Aretxarte merkatarien elkarteak eta 20.997 zenbakia izan da saritua. Brasileña kafe dendan banatu zuten zenbaki hori eta irabazleak 15 egun ditu agertzeko. Badaezpada, ordeko zenbakiak ere atera dituzte: 14.051 eta 17.242.

Bi sariren artean aukeratuko du irabazleak: natura parkera irteera *-rafting-a...-* edo upategira irteera ardo dastatze saioarekin.

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

BENGOA
URDAITEGIA

Bertako okelak eta odolosteak

Durana 9. Aretxabaleta - Tel.: 943 79 19 79

Iber

Loteria
Paper denda
Liburuak

Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39



Luis Ezeiza eskolako etxearen erabiltzaileak eskola ingurua zaindu beharko du. Etxea arkupean dago; irudiaren atzealdean ikusten da atea.

JOKIN BEREZIARTUA

Alokairu sozialeko etxeok eskatzeko hainbat baldintza bete behar ditu eskatzaileak; ekainaren 14a eta 15a, eskaera egiteko azken egunak

ETXEBIZITZA > UDALAREN ESKAINTZA

Santa Anan eta Luis Ezeiza eskolan etxe bi jarriko dituzte errentan

JOKIN BEREZIARTUA > ESKORIATZA
Udalak etxe bi jarriko ditu errentan: batetik, Santa Ana 19ko lehen solairuan dagoen etxebizitza; eta bestetik, Luis Ezeiza herri eskolan dagoena. Alokairu sozialeko etxebizitzak izango dira, eta, beraz, zenbait baldintza bete beharko dituzte eskatzaileek. Hauek dira baldintzak, bi etxeetan: adinez nagusia edo emantzipatua izatea,

Eskoriatzako Udalean erroldatua egotea, bizikidetz-unitateko kide batek ere ez edukitzea etxebizitzarik jabetzan eta urteko 15.100 euro baino gutxiago kobratzea.

Santa Ana kaleko etxerako eskaera egiteko azken eguna ekainaren 14a da eta herri eskolako, berriz, hilaren 15a; Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztu behar dira.

ESKOLA INGURUA ZAINTEA

Luis Ezeizako etxearen erabiltzaileak eskola ingurua zaintzen lagundu behar du. Hauek dira, besteak beste, haren eginbeharrak: ikastetxea, pilotalekua eta eraikin oktagonalarren ateak itxita eta alarma jarrita dagoela ziurtatzea, bertako argiak itzaltzea, zerbait arraroa sumatuko balu Ertzaintzari, Udalari eta eskolako zuzen-

daritzari jakinaraztea, eskola orduetatik kanpo edota eskolatik kanpoko jardueretan ikastetxeari eta Udalari eman daitezkeen irregulartasunen berri ematea, eta inguruko ur, gas eta argi-indar hartuneak ezagutzea, behar denean neurriak azkar hartzeko.

Informazio gehiagorako Udalaren webgunera jo dezake interesatuak: www.eskoriatza.net.



GOIENKARIA

1929an jaiotakoek bazkaria egin zuten zapatuan

Goiko irudian ageri den Eskoriatzako lagun koadrilak 1950eko kintoak dira, eta, urteroko ohiturari jarraituz, bazkaria egin zuten maiatzaren 29an. Eguerdian Ozteta jatetxean bapo bazkaldu ostean, ederto ibili ziren aspaldiko garaia gogoratuz. Lagun koadrilak jakinarazi duenez, "andreak fin-fin" ibili ziren ospakizun eguna antolatzeko.

ZAHARREN EGOITZA

Pierrugues: "Patronatua k ez du esan zuena bete"

J.B. > ESKORIATZA

Zaharren egoitza egokitzeko obren kudeaketan "oso larriak" diren irregulartasunak izan direla adierazi zuen azken osokoa Pedro Lasagabaster alkateak. Bada, PSE-EEko zinegotzi Iñaki Pierruguesek egoera argi dadin eskatu dio, alor ekonomikoan zein judizialean. Zinegotzi sozialistak dioenez, "patronatuak ez ditu Udalarekin zituen akordioak bete, behin eta berriz". Pierruguesek dio 600.000 euroko zuloa egin dela: "Urtebetean 300.000 euro izatetik 300.000 euroko zorra izatera pasa da patronatua; eraiquina zaharberritzeko arkitarkoak eskatu duen aurrekontua, hain zuzen".

OSPAKIZUNAK

90 postu, 14 urte beteko dituen Ferixan

Arizmendiren jaia goiz osoan izango da; herri bazkaria berreskuratu dute

J.B. > ESKORIATZA

Arizmendiren Ferixak 14 urte beteko ditu. Etxafuego jaurtiketa eta txistularien kalejira-oren ostean, 10:00etan hasiko da jaia. Aurten 90 postu inguru izango dira: 51 artisautza postu, baserriko produktuen 33 postu eta tresneria saltzeko beste postu batzuk. 10:15ean 13. txorimalo lehiaketa egingo dute eta 11:00etatik aurrera haur eta gaztetxoendako tailerrak, jolasak eta puzgarrak izango dira Santa Marina plazan. 11:30etik 13:00etara gazta dastaketa eta txapelketa izango dira ikastolan, 12:00etan trikitilarien kalejira eta 12:30ean dantza afrokari-bear kalejira irtengo da Herriko Plazatik. 13:00etan herriko dantza taldeak emanaldia egingo du eta 14:00etan postuen sari banaketa egingo dute.

Aurten herri bazkaria berreskuratu dute eta 250 pertsona inguru espero dira: 15:00etan izango da, pilotalekuan. Azkenik, antolatzaileek eskerrak eman gura dizekiete Ferixa aurrera irten dadin lan egin duten guztiei.

> HIRIGINTZA

Santa Ana komentuko obren behin-behineko esleipena, aho batez

Azken osokoa aho batez onartu zen Santa Ana komentuan erabilera askotariko aretoa egiteko behin-behineko esleipena. Bizilagunek eskatuta, kaperaren alboko etxeen egungo egoera aktan jasotzea erabaki zen. Obrak behin betiko esleitzen direnean, proiektu osoa ezagutzera emango dute.

> IKUSKIZUNA

Musikaz giroturiko bakarrizketak Goio Arrietaren eskutik

Aitzorrotz kultura elkartearen eskutik Goio Arrieta antzezle aretxabaletarra izango da gaur Eskoriatzan; *Harri irratixe* ikuskizunarekin dator. Bakarrizketak, musika eta bideoklipak uztartuko ditu Huheziko aretoan eskainiko duen saioan (22:00). Sarrera lau euro ordaindu beharko da.

UDALA > OSOKO BILKURA

Anbulatorioa egiteko baldintzak badaude

Behin tramitazio guztiak eginda eskriturak sinatzea falta dira Osakidetzak Torresoroan osasun etxea atontzeko

ko, Udalaren lurretan. Modu horretan, baina, BEZa berreskuratzetik ez zegoen.

OSAKIDETZAREN ESKAERA

Osakidetzak osasun etxea Torresoroan atondu ahal izateko jarritako baldintzetako bat zen lokala Udalarena izatea.

Udalak Antzuolako Udal Etxegintzari eman zion eraikina -sendagilearen lokala izan ezik- BEZa berreskuratzeko asmoz. Orain, Antzuolako Udal Etxegintzak Udalari alokatuko dio eraikina, bereziki gizarte eta kultura zerbitzuak emateko. Behin tramite guztiak amaituta, Osakidetzak

sendagilearen lokala egiteko baldintza guztiak bete dira. "Garrantzi handiko operazioa izan da eta horregatik luzatu dira hainbat gai", azaldu du alkateak. "Osakidetzaren baldintza zen lokala Udalarena izatea; behin tramitazioa eginda, eskriturak sinatzea falta dira", dio alkateak.

OSASUN ETXEA

155,56 metro koadroko lokala da Torresoroan sendagilearen lokala jartzeko erabiliko dutena. Sendagilearen kontsulta, erizain kontsulta, itxarongela eta beste hainbat gela izango ditu eraikinak. Medikuntza orokorra eta pediatria zerbitzuak emango dituzte.

ENPLEGU TAILERRA

Ekainaren 1etik 2011ko maiatzaren 31ra bitartean landuko da Debagoieneko II. enplegu tailerra. Erizaintzan, arreta soziosanitarioan eta terapia okupazionalan hezi eta prestatuko dituzte ikasleak. Mankomunitateak finantzatu beharreko proiektua izanda, kostua udalen artean banatuko dute. Antzuolako Udalari 2.200 euro kostako zaio.

ESANAK

"Osakidetzaren baldintza zen lokala Udalarena izatea; behin tramitazioa eginda, eskriturak sinatzea falta dira"

Pedro Iturbe > Alkatea

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

Antzuolako Udalaren eta Antzuolako Udal Etxegintza SA enpresaren arteko alokairu kontratua hitzartuta, Torresoroako eraikinean Osakidetzako lokala atontzeko baldintzak betetzen dira. Izan ere, Osakidetzak jarritako baldintzetako bat zen lokala Udalaren jabetzakoa izatea eta Udalak Osakidetzari lagapena egitea.

UDAL ETXEGINTZAREN ESKU

Torresoroako eraikina Antzuolako Udal Etxegintzarena -enpresa Udalarena da %100- izanez gero, BEZa berreskuratzeko aukera zegoen.

Hasiera baten, Udalak Antzuolako Udal Etxegintzari eskatu zion Torresoroa eraikitze-

JENDARTEA > OSPAKIZUNAK

Haurrendako jinkanarekin hasiko dituzte Ondarreko bizilagunek auzoko jaiak

Bihar eta etzi ospatuko dituzten jaietan, besteak beste, herri afaria egingo dute auzotarrek

A.E. > ANTZUOLA

Ondarreko auzotarrek jaiak ospatuko dituzte bihar eta etzi. Ohitura den moduan, gaztetxoekin jinkanarekin hasiko dituzte jaiak auzotarrek. 12:00etan egingo dute jinkana auzoan bertan; esan behar da Antzuolako *challenge*-aren barruan antolatutako jinka-

na dela Ondarrekoa. Jinkanarekin bukatuta, arratsaldean izango dira hurrengo ekitaldiak. 16:30ean umeendako jolasak egingo dituzte. Eguraldiaren arabera igerilekuak jarriko dituzte edo jolasak egingo dituzte. 18:00etan Pantxika txinparta pailazoaren emanaldia izango da.

AUZO-AFARIA

19:00etan krosa egingo dute, eta ondoren auzo-afaria. 21:00etan izango da afaria.

Afari ostea Izer eta Alabier trikitilariak girotuko dute. Erromeria egingo dute 22:00etatik aurrera. Auzora joango diren guztientzat kafea egingo da, osagarri guztiekin.

DOMEKAN, PROZESIOA

10:00etan, txistularien dianarekin hasiko dute eguna auzotarrek. Ondoren, 12:00etan prozesioa egingo dute. 12:30ean dantzarien saioa egingo da auzoan bertan.

13:00etan salda eta txorizoa egingo da guztientzat. Luncharekin amaituko dituzte jaiak Ondarreko auzotarrek.



BIDEZKO MERKATARITZA TALDEA

Bidezko merkataritzako otarrea

Mundumira jaiaren barruan Debagoieneko bidezko merkataritzako taldeak zozketa egin zuen: bidezko merkataritza otarrea Mari Jose Zafra bergararrarendako izan zen. Irudian, Jabier Etxaniz taldeko koordinatzailearekin ageri da Zafra. Bide batez, bidezko merkataritza taldeak eskerrak eman nahi dizkie Mundumirara joan ziren guztiei.

> ERAKUSKETA

Gizarte laguntzarako Emaus elkarteak erakusketa jarriko du Olanen etxean bihar eta etzi

Emausen eskutik *Ezagutu, formularik iraunkorra eta solidarioa*: + 3R= - CO2 kanpaina leloa duen erakusketa egongo da bihar eta etzi Olanen etxean. Arratsaldean irekiko dituzte erakusketako ateak: 18:30etik 20:30era. Datorren astean ere Olanen jarraituko du erakusketak: ekainaren 12an eta 13an, 18:30etik 20:30era. Emaus gizarte laguntzarako elkarteak da, irabazi asmorik gabekoa. Behartsuenen bizi kalitatea hobetzea da elkartearen asmoa.

oharrak

DEIALDIA

> Lokarrik sinadurak bilduko ditu domekan Ondarren

Bake prozesuari bai, Bruselasko adierazpenari sostengua lelopean sinadurak bilduko ditu Lokarrik domekan, 11:00etatik aurrera, Ondarreko plazan.

IRTEERA

> Arrola mendi taldeak Aralarre-ira irteera egingo du hilaren 13an

Arrola mendi taldeak Amezketak, Ganbo eta Larraitzera irteera egingo du hilaren 13an. 08:30ean abiatuko dira mendizaleak. Irteerara joan gura duenak hilaren 9a, eguaztena, baina lehen eman behar du izena. Izena emateko deitu 635 20 58 41 telefonora edo joan eguaztenez 19:00etatik 20:00etara Olanen etxeko 3. bulegora.

Tomas Gezalaga

Apainketarako eta industriarako pinturak

Paper margotuak

Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Tomas Gezalaga

Zoruen kutxilatuta eta bernizatzea

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR

taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

ANTZUOLA

Apainketak eta isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Abantailaz
betetako kluba!

Goiena
kluba

MAIATZEKO
ZOKETA

Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
Kuota: 45 euro



**ARRIKRUTZERAKO
BI SARRERA**

Bidali KLUBA SARRERAK
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



**UMEENTZAKO
LIBURUAK**

Bidali KLUBA LIBURUAK
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



**ELHUYAR-EN
PANPINA ETA JOKUA**

Bidali KLUBA PANPINA
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



**SKUNK-FUNKEKO
KAMISETA**

Bidali KLUBA KAMISETA
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



**MUNDUMIRAKO
MATERIALA**

Bidali KLUBA MUNDUMIRA
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



**SARI NAGUSIA
APIRILA-EKAINA**

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOKKETATUKO DA
GAU 1 TXOPEBENTA LANDETXEAN



• Tel. 94 625 49 23 / 629 45 50 79
• Basetxeta Auzoa.
• Gautegiz-Arteaga (Bizkaia)
• www.nekatur.net/txohebenta
• www.toprural.com

Maiatzean 20 urte beteko ditugu;
Estatuko lehenengoak izan ginen.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuotari sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

UDALA > 'ARAMAIXO AURRERAKIN PROIEKTUA'

Aurrerakin plana: herritarrekin batzarra martitzen arratsaldean

Herritarren iradokizunak kontuan izanda, egindako aldaketak azalduko ditu Udaleko arkitektoak

EDU MENDIBIL > ARAMAIO

Aramaioko aurrerakin planaren gaineko bilera izango da martitzenean, hilaren 8an, 18:00etan. Udaleko arkitektoak egindako

aldaketen gaineko azalpenak emango dizkie bertaratuei osoko bilkuren aretoan. Hain zuzen, herritarren eta aholku batzordearen ekarpenak izan dituzte kontuan; 60 bat iradokizun jaso dituzte azken hilabateotan. Asier Agirre alkatea eta Martin Arriolabengoa zinegotzia ere izango dira martitzeneko bileran. Herritarrei parte hartzeko gonbidapena egin nahi diete.

Aurrerakin plana ikusgai jarri dute osoko bilkuren aretoan, ekainaren 30era arte. Hemendik lau urtera herrian egin nahi

diren egitasmoen berri ematen du plan horrek.

UEMA EGUNA HILAREN 12AN

Ekainaren 12an UEMA eguna izango da Mallabian. Hainbat ekitaldi izango dira: Xabier Mendigureni omenaldia, herrien arteko Xiba jokoak, ume eta gaztetxoentzako jolasak, dantzaldia... Herri bazkarirako izenematea udaletxean egin daiteke, astelehenera arte, hilaren 7ra arte. Argibideak udaletxean bertan, 945 44 50 16 telefono zenbakian jaso ditzakete interesatuek.



Gasteizko Jazzaldian Steamboat Jazz Bandek egindako emanaldi bateko irudia.

XABIER MORAZA

KULTURA > MUSIKA

Steamboat Jazz Band taldea gaur Sastiñan

Ekaineko barikuetan musika emanaldiak izango dira Sastiñan; hurrengo, Mikel Bikandirena

(kontrabaxua) eta Jose Miguel Nanclares (bateria).

E.M. > ARAMAIO

Ekaineko barikuetan kontzertuak izango dira Sastiñan. Lehenbizikoa izango da gaur Steamboat Jazz Band taldeak 19:30ean emango duena. New Orleans estiloko jazz emanaldia izango da. Dagoeneko bi disko kaleratu ditu

taldeak: *Good new old times* (2002) eta *Nola N.O.L.A?* (2009). Steamboat Jazz Band taldeko kideak honako hauek dira: Felix Pedrosa (klarinetea eta saxo tenorra); Koldo Martinez de Luko (tronpetta); Igor Olalde (tronboia); Xabier Moraza (pianoa), Iñigo Zarate

BESTE HIRU EMANALDI

Hurrengo barikuan, hilaren 11n, Mikel Bikandiren txanda izango da, ordu eta toki berean, Txirritolaren eskutik. Deiederra eta Adarrots taldeek itxiko dute Sastiñako ekaineko egitaraua, hilaren 18an eta 25ean, hurrenez hurren.

> JAIK

Santikurtz ermitako eguna ospatuko da domekan

Aixola ta Arrixolarrek antolatuta, Orixol inguruan dagoen Santikurtz ermitako eguna ospatuko dute domekan, ekainaren 6an. Egurdiko hamabietan meza izango da, eta, meza ostean, beheko txabolan salda banatuko dute. Trikitilatiak ere izango dira giroa alaitzen. Herritarrei joateko dei egin diete antolatzaileek.

> ONDAREA

AOBTk deituta, Ametzuko bidea garbituko dute zapatuan

Sastiña ermitaren aldean dagoen Ametzuko bidea garbituko dute bihar, zapatua. Aramaioko Ondarea Berreskuratzeko Taldeak (AOBT) egin du deialdia. Era berean, sasi-garbitzeko makinak edo aitzurrak eramatea eskatu diete parte-hartzaileei. Goizeko bederatzietan batuko dira plazan. Egurdian, bazkaria egingo dute.

> ZINEMA

'Celda 211' filma emango dute gaur gauean kultura etxean

Gaur, barikua, *Celda 211* filma ikusteko aukera izango da kultura etxean, 22:15ean. Azken Goya sarietan irabazle nagusia izan zen Daniel Monzonen filma: zortzi sari eraman zituen; tartean, film onenarena, zuzendari onenarena eta aktore onenarena (Luis Tosar). Gaurko emanaldirako sarrerak euro baten salduko dituzte.

OSPAKIZUNAK > EKAINEAN

Hiru egunotan motorzaleen artean festa egiteko aukera

Boleta txapelketa, motorren erakusketa, rock-and-roll kontzertua eta beste hainbat ekintza herritarrendako

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Sasoi honetan ugaritu egiten dira motorzaleen topaketak han eta hemen. Egutegian bere lekua egin duen hitzorduetako bat Elgetako motor jaia da. Aurtengoa hirugarren edizioa izango da eta aste bukaera osorako egitaraua prestatu dute antolatzaileek. "Motorzaleen topaketa da, baina aurten ere prestatu ditugun ekintzak elgetar guztiei daude zabalik", esan du Geaxi Ezpeletak. Adierazi duenez, motor jaian izena emateko ez da beharrezkoa motorra edukitzea, eta, izanez gero ere, berdin dio zein motatakoa den.

PUBLIKOAREN SARIA

Boleta txapelketa, motor ibilbideak, jolasak, rock-and-roll kontzertua... klasikoak dira dagoene-



Motorzale taldea Elgetako I. motor jaian, duela bi urte.

JOSETXO ARANTZABAL

ko Elgetako motor jaiaren barruan. Aurten, baina, bada nobedaderik: Espaloian ipiniko den erakusketan bi sari emango dituzte, eta bat publikoak aukeratuko du. Boto bidez, erakusketako motor onena zein den esateko aukera izango dute herritarrek. Sari banaketa domeka eguerdian egingo dute.

HILAREN 12AN, GISATU LEHIAKETA
Behin motorrak berotuta, datoren aste bukaeran Koadrilen Egunaren txanda izango da. Herriko koadrilak gisatu lehiaketan parte hartzea gonbidatuta daude. Gutxienez, hamar lagunendako gisatua prestatu behar dute. Hasi errezetak prestatzen!

Ozkarbiko 30 bat bazkidek bazkaria etzi

Irisgarritasun lanengatik atzeratutako Ozkarbi eguna domekan, hilak 6, ospatuko dute. Trikitilariak girotuko dute bazkalaria, eta urteroko bazkaria egiteko 30 bat bazkide elkartuko dira. Elkartean egindako hobekuntzak ikusteko aukera polita izango da. "%100ean ez bada ere, lanak amaituta egotea espero dugu", esan du Iban Arantzabal presidentek.



L.Z.

LEINTZ GATZAGA > LANAK

Jarrita dago plazako baranda

E Planaren dirulaguntzari esker jarri dute

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Plaza barrenean garajeen gainean dagoen hormak badauka baranda. E Planaren bigarren dirulaguntzari esker jarri dute Markulete galdaragintza enpresak egindako baranda hori.

Herritarrek aspaldi zeukaten eskatuta San Migel plaza barreneko horma egokitzea, umeendako arriskutsua zelakoan; izan ere, hainbat metrotako garaiera dago bertatik azpiko bidera. Segurtasuna bermatze aldera

baranda jartzea erabaki zuen Udalak E Planaren bigarren dirulaguntzarekin. Eta, behin jarrita, alkateak jakinarazi digu askotariko iritziak daudela herrian: poztu egin dira asko, "bazen ordua" esan dute beste batzuek eta alferrik egindako lana izan dela uste duenik ere badago.

UDALA > EPAITEGIAK

Aparejadorearen auzian irakurketa kontrajarriak

Oposizioak salaketa gogorak egin ditu; alkateak dio gezurretan ari direla

L. Z. > ELGETA

EAJ-Hamaikabat taldearen buletinean irakurri dugu epaitegi batek 53.774 euro ordaintzera kondenatu duela Elgetako Udala. Alberto Olalde udal aparejadorearen auziarekin lotutako informazioa da. "Olaideri 32.451,82 euro ordaindu behar izan dizkio Udalak", esan du Patxi Basaurik. "Horrez gain, lau urteko Gizarte Segurantzza, sasoi baten bi apareja-

dore izatearen gastuak eta epaitetaren kostua ordaindu behar izan ditu Udalak". Oposizioaren kalkuluen arabera, 78.000 euro inguruko gastua eragin dio auzi horrek Udalari. "Diru asko, zein egoeratan gauden ikusita".

AUZIA, EPAITEGIETAN

"Gezurra esan dute buletinean", esan du Oxel Erostarbe alkateak. "Bi aukera eman zituen epaileak; ordaindu edo langilea berriro hartu, eta Udalak langilea berriro hartu zuen, ordaindu gabeko soldatak ordainduta". Alkateak gaineratu du auziak, oraindik ere, epaitegietan jarraitzen duela eta ikusteko dagoela zer gertatzen den.

> PILOTA

Ozkarbi pilota elkarteko bikoteak Debarroko txapelketako finala jokatu du bihar Oñatin

Juan Luis Ubera prestatzailearen esanetan, finala irabazteko aukera "%50ekoa da". Aitor Mendizabal antzuolarrak eta Andoni Aldape mallabiarrak jokatu dute Ozkarbiko kamisetarekin. Aurrez aurre Bergaroko bikote bat izango dute.

Oñatiko Aloña Mendi elkarteko pilota sailak antolatu du 63. Debarroko pilota txapelketa, eta finala Oñatiko Zubikoa kiroldegian jokatu da bihar, zapatua. Partiduak 16:30ean hasiko dira. Finala hirugarren partidua izango da.

oharrak

ERAKUSKETA

> Euskararen ibilbidea jasotzen duten 1.400 pegatina ikusgai

Iñaki de Nicolas barakaldoarrak 50.000 pegatina inguru ditu etxean, eta Espaloira euskararen aldekoak ekarri ditu. Hilaren 30era arte.

HITZALDIA

> Erleen gaineko hitzaldia hilaren 10ean, eguena

Baserritarren kooperatibak antolatuta, Martxel Aizpuruk hitzaldia egingo du. Biologoa eta erlezaina da. Hitzordua 19:00etan da kultura etxean.

KZGUNEA

> Aitor Madrid tutorea Elgetan izango da astelehenean

Ekaineko lehenengo bisita astelehenean, hilak 7, egingo du KZguneko tutoreak. Hainbat ikastaro egiteko aukera emango du. KZgunean izango da. Ordutegia: 09:00-13:00.

TXIRRINDULARITZA

> Emakumeen Birako etapa amaiera bat Elgetan

Herrian izango du helmuga hilaren 12an Emakumeen Birako kronoigoerak. Goizez jokatu da. Txirrindulariek 5,9 kilometroko Elorrio-Elgeta igotera egin behar dute.



San Migel plaza barrenean arriskua murrizteko jarritako baranda.

M.A.



Iazko lasterketan Peter Kiruik atzean utzi zuen beste faborito Chema Martinez.

GOIENKARIA

KIROL JAIA > OÑATI

Euskal Herriko atleta onenak Oñatin bihar

ESAITek antolatuko duen Euskal Selektzioaren aldeko jaiaren barruan egingo dute bihar, zapatua, atletismo lasterketa, 17:45ean hasita

XABIER URTZELAI > BERGARA

Bihar, Euskal Selektzioaren aldeko jaiaren barruan, punta-puntako 10.000 metroko lasterketa egingo dute Oñatin. Aurkezpenean azaldu moduan, Corpus bezperako lasterketa beste formatu batekin dator, eta Euskal Herriko atleta onenak batzearekin batera herri mailako atle-

tek ere esku hartu ahal izango dute. Dagoeneko 50 lagunek eman dute izena, eta tartean dira Asier Cuevas, Gontzal Sanz, Iraia Gartzia eta Unai Saenz de la Fuente moduko atleta onak.

DEBARROKO PILOTA FINALAK

Selektzioaren jaiaren barruan egingo dituzte, baita ere, Deba-

rrero pilota txapelketako finalak, bihar. Partiduak 16:30ean hasiko dituzte, Zubikoan, eta ibarreko pilotariak izango ditugu zein baino zein gehiago final guztietan.

Kadete mailako partiduan, Bergarako eta Arrasateko klubak izango dira aurrez aurre; gazte mailan, berriz, Eskoriatzako eta Bergarako pilotariak iritsi dira finalera; eta senior mailako finalean, Bergarako eta Ozkarbiko klubetako pilotariak lehiatuko dira txapela janzteko helburuarekin.

KIROL EGOKITUA > ATE IREKIAK BERGARAN

Guztiondako kirol jolasak domekan Bergaran

Kirol egokitua ezagutzera emateko jaia egingo dute San Martin plazan

federazioak antolatu du kirol egokituko ate irekien ekimena, kirol egokitua ezagutzera emateko helburuarekin. Antolatzaileek eguaztenean egin zuten prentsaurrekoan azaldu moduan, familia guztiarendako, gazte zein helduendako ekintzak egingo dituzte etzi.

TXOMIN MADINA > BERGARA

Goalball-a, saskibaloia gurgil aulkian, eslaloma, txirrindularitza egokitua, xakea, mahai tenisa, boccia... kirol modalitate horiek guztiak egiteko aukera egongo da domekan, 11:00etatik 14:00etara, Bergarako plazan. Gipuzkoako kirol egokituaren

400 FEDERATU INGURU

Kirol egokituaren Gipuzkoako federazioan 400 federatu inguru daude, eta zailtasun fisiko edo psikikoak dituztenak ere kirola egiteko gauza direla erakutsi nahi dute domekan.



Iazko nazioarteko txapelketaren une bat.

GOIENKARIA

ERRUGBIA > ZAZPIKO TXAPELKETA

Zortzi talde gizonezkoetan eta hiru emakumezkoetan

Talde euskaldunekin batera Frantziako Cadillac taldea ere izango da zelaian

deek gustura erantzuten diotelako. Hala, gizonezkoetan zortzi talde izango dira lehian: Cadillac (Frantzia), Eibar, Hernani, Ordizia, Elorrio, Bera Bera, Uribealde eta Arrasate. Eta emakumezkoetan hiru taldek jokatu dute: Eibarrek, La Unicak eta Arrasatek.

X.U. > BERGARA

Arrasateko zazpiko errugbi txapelketaren hamabigarren edizioa egingo dute bihar Mojategin, 15:00etan hasita.

Txapelketak osasuntsu jarraitzen du, Arrasatekoen urteroko deiarri Euskal Herriko tal-

Hala, gizonezkoetan bihar Ordiziari egokituko zaio txapela defendatzea, haiek izan zirenetan iaz txapelkunak, finalean Bera Berari 14-12 irabazita. Emakumezkoetan, berriz, iaz La Unica izan zen onena.

EUSKAL HERRIA
nazio bat,
SELEKTIO bat,
FEDERAZIO bat

Ekainak 5
OÑATI
XII. EUSKAL
SELEKTZIOAREN
EGUNA

Antolatzailea: **Babeslea:**

Laguntzaileak:

EGITARAUA:
 *10:30: Ikurrinaren igoera, txalaparta, dantzariak eta bertsolariak.
 *Jarraian Ekitaldia: UDALA eta ESAITen hitzaldia
 *11:30: Herri lasterketa gaztetxoentzat
 12:30 Euskal Jokoak gaztetxoentzat
 14:00: Bazkari herrikoia
 16:30: Porrotx pailasoaren bihurrikariak eta muxuak
 16:30: Debako pilota txapelketaren finalak
 18:45: 1. Euskal Herriko atletismo txapelketa irekia (10.000 m)
 20:00: ERROMERIA TRIKIZIO TALDEAREKIN txozna, taloak, euskal selektzioaren materiala eta euskal giroa

> ESKUBALOIA

Bergarak Elgoibarren irabazi eta besteen zain egon beharko du

Igoera faseko azken jardunaldia jokatu du Bergarako eskubaloit talde nagusiak bihar Elgoibarren (20:00). Azken jardunaldietan izugarri estutu da sailkapena, eta Elgoibar mendean hartzearekin batera -haiek ere igotzeko lehian-, Deustuaren porrotaren zain egon beharko dute mahoneroek.

> MENDIA

Domekan egingo dute Aiba! mendi martxa, Arrasatek irtenda

Domeka goizean goiz hasiko dute Aiba! mendi martxa, Arrasaten (07:00 Seber Altube plazan). Mendizaleek Mari (43 km) edo Azpiko (36 km) ibilbideak izango dituzte aukeran, eta, nobedade moduan, aurten mendizaleek Loo tontorra igo eta Aramaio erreka-ko ur guztiak batuz egingo dute ibilbidea.



> **ESTREINALDIA**
Yllana taldeak 'Zoo' ikuskizun berria egingo du Oñatin > 33



> **MUNDUMIRA**
Antzuolako Udalak "oso positibotzat" jo du aurtengo jaialdia > 33

> **IBAI LINAZISORO**
Bergarar horrek 13 urte ditu, eta 2 zituenean hasi zen eskiatzen ikasten; Espainiako txapelduna da orain > 34



'Patroiarekin dantzan', Corpusak kamera atzean

DOKUMENTALA 2008ko Corpus eguneko irudiekin eta elkarrizketekin osatu dute lana

OÑATIARRAK Dokumentalean lan egin duten gehienak herritarrak dira

SALGAI Asteburuan plazan jarriko duten saltokian egongo da DVDa salgai

XABIER URTZELAI > OÑATI

Labetik irten berria da *Patroiarekin dantzan*, Kepa Aranburu eta Aitor Perosterena oñatiarrek beste herrikide askoren parte-hartzearekin batera egin duten lana; eta, hain justu, Corpus ospakizunerako kaleratu dute DVDa.

Dokumentala egiteko kamera atzean izan dira Aitor Mantxola, David Ballespi, Josu Madina-beitia eta Ruth Cerqueira. Muntaiaren ardura izan dute Axel Warek eta Kepa Aranburuk. Eta Antonio Ibarrondoren musikak girotu du lana: "Igartzen da oñatiarrok egindakoa dela, herrikide askoren boluntario lanari esker atera dugu-eta proiektu hau aurrera", adierazi dio GOIENKARIARI aste barruan Aranburuk: "Seguruenik lan hau egitera kanpotik zuzendari bat etorriko balitz jendearen laguntza izango luke, baina ez guk izan dugun babesa".

Dokumentala da *Patroiarekin dantzan*, eta 55 minutu irauten du: "2008ko Corpus egunean hartutako irudiekin egin dugu dokumentala; guztira, 30 ordu baino gehiagoko materiala batu

genuen. Prozesioa bost kamera erabilia grabatu genuen, eta gaitzena izan zen momentu bakoitzean zer grabatu erabaki, ze momentu aukeratu".

DANTZARIAK, ISTORIOKO HARI

Patroiarekin dantzan lanean dantzariak egiten dute dokumentalean kontatzen den istorioan hari lana: "Prozesioko irudiekin batera, besteak beste, entseguetako irudiak ere batzen ditu lanak, baina konturatu ginen herriko hainbat lagun elkarrizketatuz gero lana biribilduko zutela". Eta, Jesus Irizar *Txutxin*, Julen Kortabarria, Jerardo Elortza, Jose Antonio Azpiazu eta Iñigo Biain aukeratu zituzten elkarrizketak egiteko.

HERRI-MINEZ EDO...

Dokumental bat egiteko Corpus eguna aukeratu izanagatik galdetuta: "Bartzelonan nengoela bururatu zitzaidan gaia. Bate-tik, salmenta ikuspuntutik pentsatu nuen akaso harrera ona izan zezakeela. Baina arrazoi nagusia izan zen distantziagatik-edo lehen baloratzen ez nituen gauzen gainean pentsatzen hasi nintzela. Euskal Herrian ditugun espresio kulturekin interesatuta, konturatu nintzen herrian bertan motibo ederra genuela lan bat egiteko; gainera, nigan misterio kutsua zuena eta, aldi berean, euskal kulturarekin lotura estua zuena".

Aranburuk eta Perosterenak espero dute DVDak herritarren artean harrera ona izatea: "Uste dugu jendeari gustatu egingo zaiola, jaiak berak indarra duelako Oñatin".



DATUA

10

EURO

Patroiarekin dantzan DVDa herriko plazan jarriko duten saltokian egongo da asteburuan salgai. 400 kopia atera dituzte, eta, harrera ona badu, eskari handiagoa egingo dute.

Atera etekina txartelari!

Abantailaz
betetako kluba!

Goiena
kluba

Abantailak

- Goienkaria astelehenetan eta ostiraletan etxeko postontzian jasotzea
- Goienak antolatutako ekitaldi eta ikastaroetan prezio berezia
- Goienak kaleratzen dituen produktuetan prezio berezia: DVD kopiak, CDak, kamisetak, Goienkaria-ko Sailkatuak, eskelak, ekitaldiarako sarrerak... eta orain, opari eta deskontu paregabeak lortu ditugu zuretzat

Eta gainera, Goiena Klubeko zozketetan parte hartzeko aukera izango duzu.

Deskontu bereziak



BERGARA (Bazkidearentzat eta lagunarentzat)

- Laser depilazioa: hanka osoa + izterondoak
- **-%15** + opari besapekoak (axilak).
- **-%20** elikagai-intolerantzia proban.
- **-%10** mikropigmentazioan: begietan, ezpainetan edo bekainetan.
- **-%10** fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.



ARRASATE/AZPEITIA/ELGOIBAR/IRUN/TOLOSA

- **-%5** konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
- **-%25** saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
- Ordezkapeneko autoa 20 euro.
- Erosketetaren momentuan, goian aipatutako deskontua baino handiagoa badago, bezeroari deskontu handiena eskainiko diogu.



ARRASATE/OÑATI

- Sukalde osoa erositako, etxetresna elektriko bat opari.



BERGARA/ARRASATE

- **-%5** pakete konbinatueta 600 eurotik gorako erosketagatik (eskaintza berezietan izan ezik).



ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA) ARRASATE

- **-%2** gasolindegian erregaia erositako.
- **-%2** dendako produktuetan.



ARRASATE/OÑATI (18 urtetik gorakoentzako bazkidearentzat)

- **-%15** ingeleseko eta euskarazko ikastaroetan, SISTEMA KONBINATUAN. Ikasturte osoan.
- **-%15** aurrez aurreko eskoletan.

Eskaintzaren epemuga: 2010/03/01



ARETXABALETA

- **-%15** zerbitzu guztietan.



CLINICA DENTAL BERGARA

BERGARA (Bazkidearentzat eta familiako batentzat)

- **-%10** zerbitzu guztietan
- **-%15** inplanteetan.
- 120 eurotik gorako tratamenduetan garbiketa doan.

TXURI-URDIN Donostia

DONOSTIA

- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan, ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia.
- **-%20** larunbatetan eta igandeetan, ez bada zubia edo oporraldia.
- **-%10** zubi eta oporraldietan.



DONOSTIA

- Bi erosi bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).



BERGARA

- **-%15** inskripzioa ordaintzean.



DONOSTIA

- Bi erosi eta bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

Enpresendako: Zure enpresa Goiena Klubean eskaini nahi baduzu jarri gurekin harremanetan.

Telefona: 943 25 05 05 | Posta-e: kluba@goiena.com

ANTZERKIA > 'ZOO'

Yllana taldearen 'Zoo' ikuskizuna Santa Ana aretoan

Familia osoari zuzendutako ikuskizunean animalia basatiak eta abentura dibertigarriak bizi izango dituzte lau protagonistek



Esploratzaileak izango dira ikuskizunaren protagonistak.

TODOSALTEATRO

NEREA MENOR > OÑATI

Zoo antzezlan berriarekin dator oraingoan Yllana antzerki taldea. 666 eta antzerako ikuskizun bereziak eskaini ostean Oñatin izango dira gaur gauean.

Herriko Santa Ana antzokian izango da antzerkia, 22:30ean. Dagoeneko sarrerak salgai daude kultura etxean, 10 eurotan; gazte txartela dutenentzat, 8 eurotan.

NATURA BASATIA

Familia osoarentzako lana eskainiko du taldeak. Barreak sorrazi nahi dituzte gizakiaren eta naturaren arteko harremanaren gaineko euren ikuspegi propioa eskainita. Animalien inguruan arituko dira eta natura basatia erakutsiko dute. Ordu

eta laurden inguru iraungo du saioak.

Oihanaren barruan esploratzaile zoro eta ausartek abentura berezia bizi izango dute. Animalia exotiko bat eskuratu nahi dute hiri handi bateko zoora eramateko. Bidean, animalia arraro asko eta bizipen berezi askori egin beharko diete aurre...

Zoo ikuskizunarekin saria irabazi dute Max arte eszeniko-

en 2010eko lehiaketan: haurrentzako ikuskizun onenaren saria. Aurreko ikuskizunekin beste hainbat sari jaso dituzte eta oso kritika onak izan dituzte.

Yllana 1991n sortu zen. Umorea oinarri hartuta, keinuek rol garrantzitsua dute emanaldietan. Umore unibertsala egiten dute, hitzik gabekoa, eta, dirudieenez, askotariko ikusleei heltzeko gai izan dira.

MUNDUMIRA > BALORAZIOA

Beste behin, Mundumira jaialdi arrakastatsua izan da

Seigarren edizioarekin pozik geratu dira antolatzaileak, balorazioa positiboa izan da

N.M./A.BARRUSO > ANTZUOLA

Asteburuan ospatu zen Mundumira. Antzuolako herri txikian egitea zen aurtengo erronka handiena, baina aurreikuspenak bete egin dira eta balorazio positiboa egin da.

Antzuolako Udalak "oso positibotzat" jo du aurtengo Mundumira jaialdia. "Eskerrak eman nahi dizkiegu etorri diren guztiei eta baita antzuolar guztiei izan duten parte-hartze bikainarengatik", adierazi du Udalak.

HERRITARRAK LANEAN

Herritarrak hasieratik inplikatu direla argi geratu da. Batzuek ekintzak antolatzen parte hartu dute, beste batzuek garbiketa lanetan edota garraioa antolatzen.

140 lagun arduratu ziren ogitartekoak eta edarien txosnaz; tartean, Anelkar elkarteak: "Eskerrak eman nahi dizkiegu bertan lan egin zuten guztiei eta Errotaberri familiari labea uzteagatik". Espero zituzten emaitza ekonomikoak ez dira bete: "Gehiago salduko genuela eta

jende gehiago etorriko zela uste genuen". Ondorioz, janaria soberan dute, baina aurkitu dute irtenbiderik: auzoetako jaiak hastear daude eta horietan erabiltzeko salduko dituzte. Talde lanari dagokionez pozik daude, gainera, gazteenganako gertutasuna areagotu egin delako.

Saltzaileen aurreikuspen ekonomikoak ere ez dira bete. Artisauak uste baino gutxiago saldu dute eta gobernu kanpoko erakundeek ere diru gutxi jaso dutela azaldu dute.

20.000 PERTSONA ANTZUOLAN

Antolatzaileen esanetan, aurreikuspenak bete eta 20.000 lagun inguru jaso zituen Antzuolak. Ekintza jendetsuena Ojos de Brujoren kontzertua izan zen: 3.500 lagun inguru izan ziren kontzertua ikusten.

Jendeak Udaletik egindako deiari erantzun eta autobusa erabili zuen. Antolatzaileak pozik daude garraio publikoa "oso ondo" ibili delako, orokorrean. Zapatuan izan zen arazo gehien: Bergaran ilara luzeak sortu ziren iluntzean.



ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.

Etxetresnetan sekulako eskaintzak!

Orain erosi, eta ordaindu sei hilabeteen interes barik.



1000 b/min
6 Kg

A+ Saikapen energetikoa

GARBIGAILUA ALF 1106

275 €



1200 b/min
7 Kg

A+ Saikapen energetikoa

GARBIGAILUA ALF 1127

345 €



1200 b/min
7 Kg

A+ Saikapen energetikoa

GARBIGAILUA WAE 24467

450 €



1200 b/min
8 Kg

A+ Saikapen energetikoa

GARBIGAILUA F 2812

445 €



1400 b/min
8 Kg

A+ Saikapen energetikoa

GARBIGAILUA L-74950A

525 €



TELEBISTA TELEFUNKEN

SAGA HD-199

19" 190 €

SAGA HD-299

22" 225 €



145
x
55
x
60

A+ Saikapen energetikoa

HOZKAILUA AFD-145

295 €



170
x
60
x
60

A+ Saikapen energetikoa

HOZKAILUA 3 FEE 1041

350 €



185
x
60
x
60

A+ Saikapen energetikoa

HOZKAILUA AFC-185 NF


410 €



A Saikapen energetikoa

INDUKZIOA SPRING I-3LB

375 €



Europar Batasunaren arategiak ezartzen duen batz besteko energia kontsumoaren araberrako energia aurrezteak.

A+ >>> 70%
A >>> 45%
B >>> 25%

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.

Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Ibai Linazisoro > Eskiatzailea

"Urte erdi eskiatzen ematen dut eta beste urte erdia hemen egoten naiz"

2 urte zituenetik eskiatzen du Ibai Linazisorok eta daukan domina kantitatean islatua dago hori; aurtengo Espainiako txapelketan lehendabiziko postua eskuratu du bergararrak. Gainera, mundu osoko lehiaketetan parte hartu du. Eskiatzeaz gain, eskalada ere gogoko du. Hori guztia gutxi balitz, burubelarri dabil ikasketetan; DBHko 1. maila egiten dihardu.

NAROA ODRIOZOLA > BERGARA

Ia-ia eskiak oinetan zituela jaioten Ibai Linazisoro. 2 urterekin hasi zen eskiatzen eta ordutik hona txapelketa asko irabazi ditu. Baina eskiatzea ez da bergararren zaletasun bakarra; izan ere, eskalaztea eta patinetan ibiltzea ere gogoko du. Eski denboraldia bukatuta, herrian da, eta tarte bat egin digu.

Zenbat urte daramatzazu eskiatzen? Nondik datorkizu eskiatzeko zaletasuna?

2 urterekin hasi nintzen eskiatzen; beraz, 11 urte daramatzat kirol hori egiten. Urtebete ikasten egon nintzen eta 3 urterekin Jakako Mayencos klubean sartu nintzen. Aitak snowa egiten zuen eta txikitan berarekin eramaten ninduen elurretara. Gehienbat, eskiatu egiten dut, baina denboraldia bukatzen denean snowa egiten dut.

Beraz, aitaren eraginez hasi zinen eskiatzen, ezta?

Bai, aitak gustuko zuen eta, ondorioz, guztiok hasi ginenez, ama, ni neu...

Zenbat eski modalitate daude eta zuk zein egiten duzu?

Hainbat modalitate daude: erraldoia, eslaloma eta abiadura-koak: supererraldoia eta jaitsiera. Nik supererraldoia, erraldoia eta eslaloma egiten ditut. Makilen posizioa eta eskien luzera da horien arteko desberdintasuna: eslalomean, makilak elkartuago daude eta eskiak motzenak dira; erraldoian, makilek distantzia handiagoa dute euren artean eta eskiak apur bat luzeagoak dira; supererraldoian, makilen arteko distantzia askoz handiagoa da eta eskiek 1,88 metro dute; jaitsieran, bi metroko eskiak erabiltzen dira.

Modalitateak kategoriekin bat datoz?

Bai, eskien tamaina kategoriekin bat dator. Infantil 1, infantil 2 eta gazte kategoriak daude. Ni infantil 1 kategorian nago. Gazte kategorian erraldoia egin behar dute derrigorrez.

Eskiatzeko denboraldia laburra izaten da. Nola egiten duzu?

Eski denboraldia irailean hasi eta martxoan bukatzen da. Horregatik, urte erdi egoten naiz eskiatzen eta beste urte erdia hemen pasatzen dut. Aurten negu osoa eman dut eskiatzen; goizean eskiatu egiten nuen eta arratsaldean ikastolara joaten nintzen.



NAROA ODRIOZOLA

PERTSONALA

Herria: Bergara. **Adina:** 13 urte. **Ikasketak:** DBHko lehenengo maila egiten dihardut Mariaren Lagundia ikastolan. **Zaletasunak:** Eskiatzea, patinatzea eta eskalaztea. **Irakurritako azken liburua:** Elvira Lindoren *Manolito gafotas*. **Gustuko film bat:** *El caba-*

llo oscuro, Christopher Nolan-ena. **Eskiatzaile bat:** Bode Miller. **Eskiatzeko pista bat:** Astungo Larraca. **Bizi izateko toki bat:** Donostia. **Bisitatu duzun lekurik politena:** Kanada. **Amets bat:** Munduko eskiatzailerik onena izatea.

Nolako entrenamenduak izaten dira?

Hasieran, teknika egiten dugu eta gero, makilekin hasten gara lasterketarako entrenatzen.

Aurtengo Espainiako txapelketan lehendabiziko postua eskuratu duzu. Espero zenuen?

Ez nuen espero, eskiaren munduan lehiakortasun handia dago-eta. Nire kategorian lehendabiziko postuan gelditu naiz eta oso pozik nago.

Espainiako txapelketaz gain, beste hainbatetan ere parte hartu duzu.

Bai; denboraldia hasten denean txapelketaz txapelketa aritzen naiz. Aurten Kanadan izan naiz, hantxe Internazionalan parte hartu dut eta laugarren geratu naiz. Horrez gain, Italian hamazazpigarrena izan naiz eta Trofeu Borrufan (Andorran jokatzeko den txapelketa) hirugarrena izan naiz.

Noiz izango da hurrengo txapelketa?

Negua hasten den arte itxaron beharko dut orain, udan elurrik ez dago-eta.

Zeintzuk dira zure helburuak?

Orain momentuan ikastolan ikasgai guztiak gaitziteza eta gero, entrenatzea.

Eskia dela-eta bidaia asko egin dituzu, ezta?

Bai, asko bidaiatu dut. Urrunen Kanadan egon naiz, eta asko gustatu zait.

Eskiatzailea izateaz gain, eskalaztea ere bazara. Noiztik?

Bai; eskalada asko gustatzen zaidan beste kirol bat da. Eskiarekin moduan, hori ere txikitatik egiten dut. Gutxi gorabehera, 5 urterekin hasi nintzen eskalada egiten. Lehen nire eskiko entrenatzailea zenak eskalatu egiten zuen eta hark irakatsi zidan. Orain, rokodromoan aritzen naiz, baina udan mendira joaten naiz eskalatzera. Horiez gain, patinatzea ere gogoko dut. Hori ez dut txikitatik egiten. Duela gutxi hasi naiz patinatzen.

Ikasketei dagokienez, zer ari zara egiten?

Mariaren Lagundia ikastolan nago Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo mailan. Oraingoan, ikasketak ondo doaz, eta horrela jarraitzea espero dut.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arexabaleta. Eraikuntza berriko etxea salgai. 96 metro koadro, hiru logela, bi komun, terraza, trastelekua eta garajea. 276.000 €. Eskriturak prezioan sartuta daude. 649 25 23 51.

Arexabaleta. Etxebizitza salgai erdialdean. 72 metro koadro eraikigarri. Hiru logela, sukaldia, egongela, komun bat eta trastelekua. Prezio interesgarria. 659 64 67 38.

Arrasate. 110 metro koadroko duplex polita erdialdean, guztiz jantzita. Bi logela (hiru egiteko aukera), bi komun, egongela eta sukaldia. Guztiz berri-tuta. 65 metro koadroko ganbara. Berehala bizi izatera joateko aukera. Oso prezio interesgarria. 673 32 78 91.

Arrasate. Bi etxebizitza salgai erdigunean. Pablo Uranga eta Iturriotz kaleetan. Bata bi logelakoa eta bestea hirukoa. 630 39 36 50.

Luz Saint-Sauveur (Frantziako Pirinioak). Etxebizitza salgai. Duplexa. Jantzia. 670 49 84 28

Oñati. 67 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Bi logela, komun, jangela, egongela eta sukaldia guztiz hornitua. 264.000 €. 659 72 06 64.

Oñati. Lope Agirre kalean 110 m²ko duplexa salgai. Sukaldia, egongela, 4 logela eta 2 komun. 372.000 €. 659 53 87 62.

Oñati. San Anton kalean etxebizitza salgai, estreinatuko. Bi logela, egongela, sukaldia eta komun. Egoera onean eta jantzita. Trastelekua eta patioa ere baditu. 665 71 77 96.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Erguinen, Ostarku gainean, etxebizitza ematen da errentan. Deitu 17:00etatik aurrera mesedez. Jose Angel edo Laura. Deitu 615 74 32 79 edo 696 79 43 88 telefono zenbakietara.

Arrasate. Etxebizitza eguzkitsua ematen da errentan San Andresen. Erdigunetik bost minutura. Sukalde handia, egongela, komun, bi logela eta ganbara. Igozailuarekin. Bikote batentzat aproposa. Deitu 650 40 19 95 edo 680 37 90 34 telefono zenbakietara.

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan Bolu auzoan. 80 metro koadro. Erdi jantzita. 600 euro. 657 79 45 61.

Donostia. Etxebizitza ematen da errentan udarako, hamabostaldietarako edo ikasturterako. 3 logela, guztiz jantzita. Hondartzatik gertu. 669 42 94 15.

Luz Saint-Sauveur (Frantziako Pirinioak). Etxebizitza ematen da errentan udarako. 670 49 84 28

Marina D'Ora. Oropesa del Mar (Castello). Apartamentua ematen da errentan. Bi logela, egongela, sukaldia, bi komun eta terraza. Aparkatze plaza eta igerilekua. Hondartzako lehen lerroan. 685 75 62 51 edo 652 73 94 88.

Oñati. 99 metro koadroko etxea ematen da errentan San Lorentzo auzoan. 4 logela, 2 komun, jantzitako sukaldia, egongela handia, garagea eta ganbara. Sukaldia, komunak eta lehiak berrituz. Eguzkitsua eta bista ederrak dauzka. 687 00 54 79.

Oñati. Hiru logelako etxea errentan. Bi bainugela, sukaldia jantzita, egongela, bulego txikia, bi balkoi eta gas naturaleko berogailua. Laugarren solairua, igozailuarekin. 677 21 21 62.

Peñiskola (Castello). Apartamentuak errentan. Hamabostaldiak. Bi logelakoak. Guztiz jantzitako eta hornituz. Hondartzatik 50 metrora. Deitu 948 41 00 79 edo 616 95 04 00 telefono zenbakietara.

Ribadesella. Udarako, etxebizitza ematen da errentan. 5 pertsonarendako egokia. 80 euro egunean. 695 78 22 47.

104. ERRENTAN HARTU

Mediterraneo aldean 4-6 pertsonendako etxebizitza hartuko genuke errentan abuztuan. 653 01 76 67.

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Bi ikasle behar dira etxebizitza osatzeko 2010-2011 ikasturterako. Uriburu kalean, unibertsitatetik gertu. Prezio interesgarria. 699 49 87 89.

Arrasate. Etxea osatzeko gela bat dugu errentan. 630 71 35 83.

Arrasate. Logela ematen da errentan. 619 78 63 41.

Bergara. Logela bat ematen da errentan, sukaldia erabiltzeko aukerarekin. 230 euro hilean. Natalia. 670 85 86 68.

Bergara. Logela ematen da errentan. Nahiago dugu kanpotarra izatea. 655 71 41 24.

Debagoiena. Irailaren hasieratik Gabonak arte Mondragon Unibertsitate (Huzei) etorriko diren Erasmus ikasleentzako logelak behar dira. Txema. 656 77 66 32.

Eskoriatza. Pertsona arduratsua behar dugu etxebizitza osatzeko. Etxe berria da eta erdigunean dago. 650 82 83 48.

2/ GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Garaje bat alokatzen da unibertsitatetik oso gertu, Usaetxe plazan. 60 euro hilean. soliveira@hotmail.es edo. 678 53 82 48.

Bergara. Boni Laskurain kalean, Santa Marina parean, garaje itxia ematen da errentan. 652 77 52 26.

3/ LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

ELORRIO

Tanger jatetxea errentan ematen da jubilazioagatik. 2005ean berritua.

94 682 00 52

ARRASATE

Taberna errentan ematen da erdialdean. 665 70 88 30

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

ARRASATE

Ile-apaintzailea behar da 943 77 13 78

402. ESKAERAK

20 urteko mutila prest nagusiak zaintzeko, eguneroko ordu batzuk. Esperientzia daukat. 609 98 02 52.

Arexabaleta eta inguruetan bertako neska gaztea gertu uztailean, ordutegi arazorik gabe, haurrak zaintzeko. 663 73 49 95.

IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

943 25 05 05

sailkatuak@goiena.com edo www.goiena.net/sailkatuak

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:

ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU/ALOKATU.

GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 20 € (BEZ BARNE).

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Arexabaleta. Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Mari. 943 53 33 92

Arrasate. 20 urteko mutila gertu erakuntzan, garbiketan edo zerbitzari aritzeko. 619 78 63 41.

Arrasate. Bertako neska gertu nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat. 618 00 08 28

Arrasate. Emakumea gertu sukaldian lagundu, plantxa edo garbiketarako egiteko, orduka. 647 16 40 49.

Arrasate. Emakumea, 51 urtekoa, gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. 943 79 60 89.

Arrasate. Gizona gertu garbiketarako, nagusiak zaindu eta sukalde laguntzaile lanetarako. 634 84 41 94.

Basolanak. Arrasateko mutil euskalduna gertu basoak garbitzeko: belarra, narrak... Joxe. 653 01 83 43.

Bergara edo Arrasate. Neska euskalduna gertu pertsona nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 53 27 17 edo 616 84 13 07

Bergara. Emakume bat lan desberdinetan aritzeko gertu. 695 75 42 45.

Bergara. Emakumea gertu haurrak eta nagusiak zaindu eta garbiketara lanak egiteko. 610 34 97 88.

Bergara. Harakina lan egiteko gertu; hezurgabetzen esperientziaduna. Beste lan mota batzuk egiteko ere gertu. Deitu 610 91 33 40 telefono zenbakira.

Bergara. Lan bila dabilen emakumea naiz; pertsona helduak zaintzen, tabernak garbitzen... 695 75 42 45.

Bergara. Mutila lan bila dabil. 697 54 28 76.

Bergara. Ohitura oneko gizona naiz, eta lan bila nabil; pertsona helduak zaintzen, tabernak garbitzen... 697 54 22 45.

Debagoiena. 17 urteko neska, batxilergoa bukatu berri, udan umeak zaindu eta etxeko garbitzeko gertu. 665 72 57 64.

Debagoiena. 17 urteko neska, batxilergoa bukatu berri, udan umeak zaindu, etxeko garbitu eta eskola partikularrak emateko gertu. 667 80 69 99.

Debagoiena. 17 urteko neska, batxilergoa bukatu berri, udan umeak zaintzeko gertu. 634 43 28 87.

Debagoiena. 18 urteko neska, batxilergoa bukatu berri, udan umeak zaintzeko gertu. Deitu 678 02 04 36 telefonora.

Debagoiena. 27 urteko mutila gertu sukaldari lanetarako. 689 68 56 81.

Debagoiena. 34 urteko neska brasildarra naiz eta Mari daukat izana. Etxeko garbitzeko prest nago. Ez daukat arazorik ordutegiarekin eta lehenago ere etxeko garbitzen aritu izan

naiz. Nagusiak zaintzeko ere prest nago. 688 80 21 29 edo 943 79 51 28.

Debagoiena. Aretxabaletako neska gazte arduratsua uztailean haurrak zaintzeko prest. 696 44 43 99.

Debagoiena. Emakumea etxeko pedikura eta manikura egiteko prest. 10 euro. Deitu 654 79 07 58 telefonora.

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaintzeko eta garbitasun lanak egiteko. 646 77 85 31.

Debagoiena. Mutila gertu zerbitzari, garbiketa, iturgin laguntzaile edo peoi lanetan jarduteko. 671 84 71 71.

Debagoiena. Neska batek lan egingo luke orduka. Deitu 677 73 79 59 telefono zenbakira.

Debagoiena. Neska gertu pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Erreferentzia onak. 638 93 11 48.

Debagoiena. Sei urteko esperientzia dut nagusiak zaintzen eta etxean lo egiten edo egunean zehar lan egingo nuke. Bestelako lanetarako ere gertu nengoke. Deitu 638 89 98 60 telefono zenbakira.

